



ARGIA

Lander Martínez,
Ahal Dugu

**“JAURLARITZA
BERRIA
ERATZEA
DA GURE
HELBURUA”**

LARRUN: EAE-RAKO
HEZKUNTZA LEGEA
OSATU EZINEAN

FRANÇOISE DAVID,
EMAKUMEEN
MUNDU MARTXAREN
SORTZAILEETAKO BAT



BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA

**FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA** BLA BLA BLA LA

BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL

BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA

BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA

BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT

BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA

BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545
www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIaren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 20 June Fernández
- 21 Jose Inazio Basterretxea
Edu Zelaieta
- 22 Angel Erro
- 23 Gorka Moreno Márquez



Ekialde Hurbiletik iritsitako errefuxiatuen errealitate gordinari gertutik begiratu diogu Serbiako Presevo hirian (ARGAZKIA: ANDONI LUBAKI)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
FRANÇOISE DAVID
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Peli Romarategi: "Ebanjelizazioa edertzea omen zen nire egitekoa Ekuadorko misioetan" / Miel A. Elustondo
- 24 | Presevo, Europaren ateko ilaratik / Andoni Lubaki
- 29 | Askekintza: "Gure gorputzak animalien hilerrira dira" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 30 | Lander Martinez (Ahal Dugu-Podemos): "EAEn gobernu berria eratzea da gure helburua" / Mikel Asurmendi
- 34 | Emakumeentzako bakea noizko? / Danele Sarriguarte Mochales
- 36 | Eusle metodoa, lantokian euskararen erabilera areagotzeko tresna / Onintza Irueta Azkune
- 42 | Baionako barraraino / Itxaro Borda
- 46 | Telesail zaharrak berpizten; zergatik? / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua


Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
 Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
 Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
 Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
 Interneten: www.argia.eus.
 Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
 Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
 Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
 Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

Festa eta aldarrikapena Europako Kultur Hiriburuan

Abenduaren 20an sartu ziren, danbor hotsen artean, donostiarrak DSS2016EU hiriburutzan. Azken hamarkadetan bezala, ez zen aldarrikapenik falta izan plazan. Euskal presoen dispersioaren aurkako aldarriari, Europar Batasunari kritika gehitu zitzaion txistualdi gisa. Handik hiru egunera ospatu zen hiriburutzaren inaugurazio ekitaldi ofizialak ere kritika handiak eragin ditu Donostian.

Argazkia: Dani Blanco





t "Pentsatzen jarrita, Donostia2016k Hansel Cereza kontratatuz, Realak fitxaje gehienekin egiten duenaren tradizioa jarraitu du, ezta?"

X. Mendiguren @xme64

argia.eus-en ikusgai



📺 Zer gertatzen ari da Ekialde Hurbilean?

Mikel Aiestaran eta Karlos Zurutuza kazetarien hitzaldia Ekialde Hurbileko egoeraz.



👤 "Eskubide administratiboak parekatu nahi ditugu baserrian"

Begoña Aristi, Tolosako Aldaba Txiki auzoko baserritarra eta Emakume Baserritarren Elkartearen kidea.



Gertaturikoa salatzeko, kontzentrazioa egin zuten, "Kapitalismoak hiltzen gaitu" lelopean. Irudian, deialdiaren kartela.

Heriotza kale gorrian

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

Kutzazainean lo zegoela, emakume etxegabe bat hil zen Donostian, San Sebastian Egunean. Gertaerak agerian utzi du berriro ere kalean bizi diren pertsonen errealitate gordina. Aterperik ez, eta askok gaua banku, eraikin abandonatu eta bestelako zokoetan igarotzea beste erremediorik ez dute izaten.

Euskal Herrian 3.000 etxegabetik gora daude, eta horietatik gehienek gauak aterpetxeetan pasatzen dituzten arren, beste askok kale gorrian egiten du lo. 2014ko urriaren 14tik 15erako gauean egindako zenbaketa batean 323 etxegabe topatu zituzten kalean lotan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Neurketa berean 1.513 etxegabe topatu zituzten EAEko aterpetxeetan. Nafarroan kalkulatu da aterpetxeetan

orotara 200-300 etxegabe inguruk egiten dutela lo. Ipar Euskal Herrian, 2014an Atherba elkarteak 2.400 laguntza eskaera jaso zituen, horietatik gehienak urgentziazkoak.


Goiarentzat, zaila da "norberaren borondatea baldintzatzea"

Eneko Goia Donostiako alkateak Euskadi Irratian azpimarratu zuen hildakoak uko egiten ziela gizarte zerbitzuei: "Norberaren borondatea zein izaten den oso zaila da baldintzatzea. Ez da gauza berria gainera, urteetan zehar izandako harremana da, eta zitetara ez azaldu eta bueno... Seguruenik, eta zuhurtziaz esan beharreko gauza da, badira beste faktore batzuk kalean egotearenak ez direnak agian, eta agian faktore horiek dira kalean egotea eragin zutenak, horrelako egoera bat gertatzea eraman dutenak".

"Klima aldaketa da gure belaunaldiaren erronka"

CHARLES F. BOLDEN, NASA-KO ARDURADUNA

1880an erregistroak abiatu zituztenetik, planetak jasan duen inoizko urterik beroena izan zen iazkoa, NASA agentzia espazialak jakinarazi duenez. Aurreko errekorra 2014ak zuen eta dagoeneko hainbat ahotsek iragarri dute aurtengoa 2015a baino are beroagoa izango dela. Charles F. Boldenen hitzetan, tenperatura aldaketa hau "hein handi batean atmosferara isuritako karbono dioxidoak eta beste hainbat isurpenek" eragin dute. (2016/01/20)



ABERASTASUNAREN BANAKETA

Balantza, gero eta bidegabeagoa

Munduko herritarren %1 gainerako %99 baino aberatsagoa da, Oxfam elkartearen txosten baten arabera. GKEak zabalduko datuek desberdintasun larriari berri ematen dute: munduko 62 pertsona aberatsenek 3.600.000 pobreenek –populazioaren erdia– adina ondare zuten 2015ean. Batzuen eta besteen arteko aldea urterik urte handituz doa.

3.600.000.000 = 62

pobre

aberats

bilioi bat \$ gutxiago

Munduko 3.600.000 biztanle pobreenen ondarea bilioi bat (%41) urritu da 2010etik.



Bill Gates
(76.200 milioi \$)



Amancio Ortega
(66.500 milioi \$)



Carlos Slim
(47.000 milioi \$)





Mark Zuckerberg
(41.300 milioi \$)

2010ean, 388
persona ziren munduko populazioaren erdiak adina ondasun zutenak

2014an, 80
2015ean, 62

542.000 milioi
handitu da 2010etik,
62 lagun horien aberastasuna

1,73 bilioi
Horixe, munduko 62 aberatsenek 2015ean zuten ondarea. NDFren arabera, munduan 13 estatuk baizik ez dute hortik gorako BPGa (2014ko datua)



Iturriak: Oxfam, Forbes, Nazioarteko Diru Funtza.



Financial Times-ek irudi hau erabili zuen urtarrilaren 20an, burtsek bizitako izualdia ilustratzeko.

Ekonomia alarma gorrian

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Davosen egin berri duten Munduko Ekonomia Foroan azkenaldiko munduko turbulentzia ekonomikoak izan dira protagonista. Krisi globala ate joka dugula dioten lerro-buru kezkarriak irakurri ditugu joan den astean.

Txinaren hazkundeak azken 25 urtetako mantoena

Txinako hazkundeak %6,9koa izan da 2015ean. Azken bi hamarkadetan %10etik gorako hazkundeak izan du eta datu hori 25 urteetako baxuena da. Zenbaiten arabera Txina zerbitzuetan eta klase ertainaren kontsumoan oinarritutako hazkunde eredurantz doa. Nolanahi ere, erraldi asiarraren mantsotzeak inbertitzaileak urduritu ditu eta Txinako burtsen gorabeherek munduko finantzetan ere eragina izan dute.

Petrolio upela 2003ko prezioaren azpitik

Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak produzitzen duen petrolio upela 25 dolarren azpitik jarri da; hala, urte beltzak 2003tik hona izan duen preziorik merkeena du orain. Europan erreferentziatzeko den Brent upela ere minimo historikoan dago: 27,72 dolar. Peak oila jo dugula nabarmena den une honetan, petrolio esportatzaileek dirua behar dute eta ez daude prest produkzioa jaisteko. Aitzitik, erregai eskaria gutxitu egin da krisiaren ondorioz eta lehengaietatik bizi diren herrialdeak egoera larrian daude.

Mundua ez da hainbeste haziko

Bi hamarren jaitsi du Nazioarteko Diru Funtsekin munduko ekonomiaren haz-

kunde aurreikuspena. Erakunde horren arabera, 2016an hazkunde globala %3,4 izango da eta 2017an %3,6. Batez ere garatze bidean dauden herrialdeek sorturiko zalantzen ondorioz errebisatu dute beherantz hazkundeak -Brasilek esaterako, %3,5eko beherakada izango luke 2017an-. Txinaren mantsotzea, petrolio prezioen beherakada eta AEBetako moneta politikak zorrotzak sorturiko finantzazio arazoak ei dira arrisku nagusienak.

Europako burtsak hondoratu egin dira

Europako burtsen indize nagusia den FTSEurofirst-ek %3,44 egin zuen behera urtarrilaren 20an ireki eta berehala. Asiazken beltzak munduko burtsa nagusiak ere harapatu zituen: Wall Streetek %3,5 egin zuen behera eta Espainiako Ibex35-k urtebetean %13 galdu du. Inbertitzaileen izualdia Italiako bankuetan islatu da nabarmen: Monte de i Paschi %18 galtzera iritsi zen, Milango burtsak kiebra saihestearren kotizazioa etetea erabaki zuen arte.

200 milioi langabetu 2017an

2015 urteak 197 milioi pasa langabetu-ekin amaitu zuen eta 2017an munduan 200 milioi pertsona lanik gabe egongo dira Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, munduko ekonomiaren uzurtzea ondorioz. Erakundeak enpleguaren kalitatean jarri du azpimarra: gaureriko herrialdeetan enplegua sortu den arren, kalitate eskasekoa eta prekarioa izan da, eta mundu osoan enplegu "kaltebera" -autonomoak eta ordaindu gabeko familia lanak- kopuru osoaren %46 da, 1.500 milioi pertsona bizi dira lan-baldintza eskas horiekin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gizarte hau eta sistema hau aldatu



Juan Mari Arregi

Espainiako Estatuko 20 pertsona aberatsenen ondarea 115.100 milioi eurokoa zen 2015ean. Dirudun talde horrek Estatuko %30 behartsuenak duen adinako aberastasuna dauka pilatuta, Oxfam elkarteak egindako ikerketa baten arabera. Espainiako Estatuko biztanleen %30a, 13,4 milioi pertsona, pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dago. Baina desoreka ez da Espainiako gaitza soilik. 62 pertsona aberatsenek 3.600 milioi lagun-entzako aberastasun bera dute munduan, biztanleriaren erdiak adina, alegia.

Bien bitartean, zerga politikak handienei mesede egiten jarraitzen dute. Ikerketa beraren arabera, bildutako 10 eurotik 9 langileen nominatik dator. Euroa baino gutxiago bano ez da biltzen kapitalen errendimendutik. Aldi berean, paradisu fisikaletan egindako inbertsioak gorantz doaz. Munduko hamar enpresa handienetatik bederatzik toki horietan dituzte beren diruak sartuta: zazpi bilioi euro ezkatuzten dituzte bertan. Espainiako Estatuaren kasuan, paradisu fisikaletan inbertituriko kapitala %2.000 igo da azken urteetan.

Egoera horren arduradun diren eta gobernuen politikak baldintzatzen dituzten asko Davosen bildu ziren joan den astean. Luxuaren eta elurraren erdian eztabaidatu dute. Ez ordea sistema kapitalista aldatzeko, makillatzeko baizik, euren politikak eta sistema neoliberalak ekarriko dituzten desoreka handiagoek eta langabeziak sorturiko ezegonkortasuna saihestearren. Gizarte hau eta sistema hau aldatzeko, elkartasunaz gain, gehiengoaren zerbitzura dauden gobernuak behar dira, politika ekonomiko eta sozial antikapitalistak bultzatzen dituzten ordezkariak. Has daitezke, adibidez, paradisu fiskalak ezabatzen eta horiek erabiltzen dituztenak pertsegitzen.



KRML BIZIRIK

Karmelo ikastola biziberritzen ari dira auzolanean

BILBO. Joan den azaroan, KRML Bizirik dinamikako kideek Bilboko Santutxu eta Atxuri auzoen artean abandonatuta zegoen Karmelo ikastola okupatu eta berreskuratu zuten "auzoarentzat eta auzotarrentzat proiektu alternatibo eta herritarra" sortzeko. Berriki, Bilboko Udalarekin harremanetan jarri direla jakinarazi dute erai-kinaren inguruko akordioa lotzeko. Auzolanean eraikina atontzen aritu dira azken asteetan, eta dagoeneko ludoteka, liburutegia, frontoia eta jantoki eta aldageletako espazioak martxan dituzte. Deia luzatu diete adin, sexu, jatorri eta interes ezberdineko herritarrei, Karmelo ikastolako espazioari ekarpenak egiteko.

Zelula minbizi-eragileak hiltzen ditu marihuanak

Asier Arrate Irukieta

@AsierArrate

Kalamuak duen THC osagaiak zelula minbizi-eragileak beren buruaz beste egitera bultzatzen dituela frogatu du Cristina Sánchez Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko biokimika molekularreko ikertzaileak.

Zelula gaixoak

Sánchezek 15 urte da-ramatza kanabisaren eratorriak aztertzen; frogatu duenez, zelula gaixoei eragiten dio marihuanaren THC osagai nagusiak, osasuntsuak kanpoan utziz. Kanabisaren eratorriek tumore mota guztiei eragiten dietela azaldu du.

Saguetatik pertsonetara

Momentuz saguekin baino ezin izan dute frogatu zientifikoki, baina zelula-hazkuntzetan ere erantzun ona izan du ikerketak. Erresuma Batuan hasi berri dira pertsonekin probak egiten.

Ludikoa vs. terapeutikoa

Marihuanaren efektu psikotropikoak traba dira pertsonekin probak egiteko. Baina Sánchezek uste du medikuntzan prestatzen ari direla kanabisak minbiziaren tratamenduan izan ditzakeen ondorioak ikertzeko.

KONTZILIAZIOA



%4

Seme-alaba zaintzeko 2015ean EAEn eszedentzia eskatu zutenetik %4 baino ez ziren gizonetzkoak. Lanaldia murriztea eskatu zutenetik, %8 izan ziren gizonak, eta %92 emakumeak..

%80

Gaixoak edo menpeko pertsonak zaintzeko prestazio eskaeren %80 emakumeek egin zituzten 2015ean.



250 LANGILE KALERATU NAHI DITU TRW ENPRESAK

Iruñeko Landaben poligonoan lantegia duen TRW automozio enpresako zuzendaritzak 250 lagun kaleratzeko asmoa agertu du, lantegiko atek irekita mantentzearen truke.



OTEGI, GORENAREN ESKU

Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota du Arnaldo Otegiaren defentsak aurkeztutako babes helegitea eta ezingo du kargu publikorik izan 2021eko otsailaren 28 arte, hauteskundeetan aurkezteko aukera zailduz. Auzitegi Gorenera joko du defentsak. Bestalde, *Free Otegi, free them all* abestia sortu dute hainbat artistaren artean.



PLASTIKOZ INGURATUTA

Egungo kontsumo erritmoari eutsiz gero, 2050ean itsasoetan dagoen plastikoaren pisua arrainena baino handiagoa izango da, ikerketa baten arabera.

Abian den eztabaidaren gako batzuk



Xabier Letona

@xletona

ABIAN PROZESUA jarri dute martxan ezker abertzalean azken bost urteetako estrategia aztertu eta etorkizuneko oinarri berriak finkatzeko. 2010ean adostutako *Zutik Euskal Herria* agiriak gidatu du azken urteetako norabidea eta haren erabakirik garrantzitsuena borroka armatuaren amaiera izan zen. Horretan zantalzarik ez bada ere, berau gauzatu duen ETA erakundeak bizirik dirau oraindik, arma eta guzti gainera. Errealitatean agian ez du horren garrantzi handirik, baina sinbolikoki bai. Korapilo ugari askatu beharko ditu prozesu horretan ezker abertzaleak. Hemen batzuk.

Arnaldo Otegi eztabaidaren erdian kaleratuko da, eta lider izaera oso onartua badu ere, hauek ez dute miraririk egiten

Eragin esparrua. Sortuk gidatutako prozesua da hau, baina ezker abertzale osoari eragin gura diona. Beraz, zer da ezker abertzalea, nork hartzen ditu erabakiak eta nori eragiten dio? Auzia historikoa da, baina borroka armatuak iraun duen bitartean, ETAre esana giltzarri izan da, seguruenik borroka armatuak indar handia duten gainerako

esperientzietan bezala. HBrengan oinarritutako herritarren batasuna klabea izan zen ilegalizazio garaien etorrera arte. Batasunak eta Sortuk bestelako antolaketa moldeak ekarri dituzte, baina lehenaren kasuan, ilegalizazioak ez zuen utzi inongo ereduren garapen politikoa normalik. Sortuk izan du horretarako aukera egokiagoa, eta badirudi bera izango dela ezker abertzalearen ardatza. Ez dago garbi nola, eta hori da Abianek finkatu nahi duena. Historiara begira, argi da herritarren batasunaren formula arrakastatsua izan zela. Ezker abertzalea malgutasun handiz irakurtzea da klabeetako bat. Horrez gain, nola uztartzen da hori egungo hauteskunde formularekin?

Bitartekoak. Ezker abertzalea espazio soziologiko zabal moduan hartuta, ez dago zalantza handirik Batasunak eta Sortuk asmatu zutela borroka armatuaren amaiera bideratzean. Erabaki hori nola hartu zen asko eztabaidatu izan da, ea zilegitasunik bazuen ala ez, Batasunak hartu zuelako erabakia eta ez ezker abertzaleko erakundeetako ordezkari guztien artean. Eztabaida hor izango da betirako, baina gailentzen ari den errelatoa hori da. Dena den, oso argi dago ezker abertzalearen alderik kopurutsuenak -Batasunako militantziak- armen bidea amaitu nahi zuela. Zeresanik ez esparru soziologikora jota, armekin jarraitu gura zuen minoria oso txikia zen.

Ildo politikoa. Baina bistan da Sortuk ez zuela guztiz asmatu ildo politikoan, ez behintzat epe laburrari begira. Arrakasta itzela izan zuen EH Bilduren hauteskunde formularekin, baina ez bere oinarri politikoaren egituraketan, eta

seguruenik horrek hauteskundeetako krisia ekarri dio, Espainiako hauteskunde orokorretan bere gordintasun osoz islatu dena. Bake prozesu bat eratzeko ahaleginak kale egin dio, ez da negoziatziorik izan eta bere ikuspegitik gatazkaren ondorio larriena zintzilik geratu zaio: presoena. Espetxeen jira-biran sortutako esperantzak etsipen maila handia ekarri du, eta arazoak ere bai.

Independentzia da ezker abertzalearen helburu estrategikoetako eta begirada hori ere zuzendu gura da orain: erabaki eskubideak topagune gisa balio dezake, baina independentzia inork tinkotasunez jorratzen ez badu, egunerokotasunak lehen planoetatik desagertzera eraman dezake.

Ezkerreko mugimenduen hauteskunde arrakastaren beste ondorioetako bat ere bete-betean eman da ezker abertzalean: berez ahula zen gizarte mugimendu aberatsa are eta gehiago ahuldu du dinamika instituzionalak. Elkar elikatu barik, mugimendu instituzionala hondoratu egiten da edo bereziki ahuldu. Bere oinarri soziologikoa ahalduz badu lanik Abianen ondorengoak. Funtsen, negoziazioaren eskemak konfrontazio demokratikoarena estali du.

Pertsonak. Gaitza da zerbait asko berritzea belaunaldi zahar eta inertziez kutsatuak bultzada berriei lekuri utzi ezean. Oker egon naiteke, baina kanpotik ikusita bederen, pertsona berdintsuak dira leku garrantzitsuetan, zuzentzen eta erabakitzen. Rufi Etxeberraren Iruñeko hitzaldiak, besteak beste, hori islatzen du argi eta garbi. Arnaldo Otegi eztabaidaren erdian kaleratuko da, eta lider izaera oso onartua badu ere, hauek ez dute miraririk egiten. ■


Beste behin ere,
AUTONOMIA
EZINEAN:

HERRITARRON bizkar
UZTEN DITU HIZKUNTZA
REN DEFENTSA, ETA
EGUNEROKO ESTRESA

TXANTXANGORRIAK
BERE, EREMUA
ZAINDU OHI DU
ARROTZENGANDIK

UZTEN
baziolo
beti
ere

INGLATERRAK
KANPORATUKO
DITU INGELESEZ
EZ DAKITEN
ARROTZAK



SK

Filantrokapitalistak, erruki handiz kateatzen gaituzten oligarka horiek



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Aberats handiek beti maite izan badute karitatea erakustea, muturreko kapitalismoaren garaiotan, filantropia bera muturreraino eramaten ari dira, Facebookeko ugazaba Mark Zuckerbergen filantropiazko azken operazioak erakutsi duenez. Konplexuak galdurik, oligarkek erabaki dute filantropia erabiltzea batak bestea aberatsagotzeko.



2015eko abenduaren 1ean mundu osoari opari handi bat iragarri zioten Facebooken jabe Mark Zuckerberg eta bere emazte Priscilla Chanek: Facebooken akzioen %99, zehazki 45.000 milioi dolarren balioa, gizakiaren aurrerapena sustatzeko.

Senar-emazte txit aberats filantropoek eskuzabaltasun keinuaz ospatu zuten beren seme Maxen jaiotza. Facebookek zabalduetako gutunean, Zuckerberg aita-amek ttikiari azaldu zizkioten donazioaren bi helburu nagusiak. Bata, giza bizitza azken mugetaraino hobetzea, sustatuz medikuntzan, ekonomiazko aukeretan eta informazioaren eskuratzeko ahalmenean zentratutako proiektuak. Bestea, txirotasuna hobetu eta baztertutako taldeak ahalduntzea.

Zuckerbergtarrek edo beste fundazio ospetsu baten jabe diren Bill eta Melinda Gates bezalako jendeek osatzen dute *filantrokapitalismoa* deitzen dena. Kontzeptua *The Economist* astekariko Matthew Bishopek asmatu zuen 2008an. Globalizazioaren garaiko karitatea aztertzen hasita, baina, Linsey McGoey soziologo ingelesak bere liburuaren tituluari ipini bezala, "Doako oparirik ez da: Gates fundazioa eta filantropiaren prezioa".

In *These Times* gune aurrerazalean elkarrizketaturik, McGoeyk argitu du egunokaz hainbeste miresmen pizten duen karitate hau ez dela berria batere. Gaur munduan ezagunak diren fundazio klasiko handiak, Carnegie, Rockefeller...

beren korporazioen antzeko egituraz antolatuta zituzten izen bereko industrial handiek. Emaitzetan oinarritutako filantropi estrategiak, Gates, Warren Buffett, George Soros eta abarren fundazioek hain famatu egin dutena, modernoa da baina XX. mende hasieratik da ezaguna.

Halere egia da Facebookeko nagusiak urrats berria eman duela. Gatestarrena bezalako fundazio klasiko batek Estatuarentzako zergak arintzearen truke diru-laguntza ematen badiu enpresa komertzial bati, badauzka legezko baldintza batzuk segurtatzeko diru hori ongintzarako erabili dela eta ez etekin pribatuetarako.

Aldiz, Zuckerbergekek ez du fundaziorik sortu, erantzukizun mugatuko korporazio bati (LLC *Limited Liability Corporation* ingelesez) eman dizkio bere akzio ia guztiak eta honek baimentzen dio ustezko karitatearen diruak zeinek zertan erabili dituen ez publiko egitea. Helburuak publikoki ezagutarazi arren, dirua inoren kontrolik gabe erabili. Filantropiazko lanetarako dirutzak edozein enpresa komertzial eskainita ere, herritarrak usteko dute plutokratak bere altxorra *oparitu* egin diola gizadiari.

"Hona hemen -dio McGoeyk- filantropia berri baten jaiotza: aberatsek opariak zuzenean aberatsei egiten, orain arte sekula ikusi gabekoa. 'Korporazioen filantropia' kontzeptuaren esanahia aldatzen ari da erabat. Lehen adierazten zuten korporazioek beren

etekin zati bat irabazirik gabeko erakundeei ematen zietela. Orain, berriz, oso bestela da: korporazioen filantropiak egiten du ustezko karitatea diruz lagunduz beren buruak diru-laguntza beharrean direla argudiatzen duten enpresa komertzialei".

Mugarik gabeko aberatsak

Justizia globalaren gaiak jorratzen dituen beste aditu batek, Cynthia Petersek, hau idatzi du *The Change Agent* aldizkarian: "*Corporate Charity Is Corporate Power*". Karitate honek multinazionalen boterea sendotzen duela argudiatzeko arrazoiak aurreratu ditu. Korporazio batek zergak arintzen ditu kontratatzen duenari ere arinduz: munduko 10 aberatsenetako bat den Zuckerbergekek akzioak LLC berriari pasatuz kasik zergarik ez du pagatuko, eta honi lanak egingo dizkioten enpresak ere ez.

Bestetik, oligarkiak bere burua sendotzen du. Orain arte, zergen dirua gastatzeko moduz herritarrek zerbait erabaki zezaketean, mobilizazioen bidez politikariei presio eginda. Hemendik aurrera Zuckerberg bezalako pertsonen eskuetan geratzen da aberastasuna zertan gastatu erabakitzea.

Demokrazia ahultzen dute filantropoek. Jende ahulenen bizimodua hobetzea Estatuaren gain egotetik oligarken "eskuzabaltasunaren" mende egotera pasatzen da: ospitale bateko zerbitzu berri bat finantzatzea dela, ikastetxe bati oparia... txiroen eritasun guztien



Facebook korporazioak zabalduko argazkian, multinazionalako nagusi Mark Zuckerberg eta Priscilla Chan beren seme Max aurkezten munduari 2015eko abenduaren 1ean. Irudi samur honekin batera zihoan Facebookeko akzioak gizadiaren aldeko ekintzetarako donatzeko erabakiaren berria. Zuckerberg (1984) da Oxfam GKEren kalkuluetan munduko 3.600.000.000 herritar txiroenek daukaten adina ondasun pilatzen duten 62 pertsona izugarri aberatsetako bat.

artean lehentasuna duena malaria ala beste bat den ere eztabaida publikoz ez, nagusi jaunak erabakiko.

Ororen buru, Petersentzako filantropiazko estrategiok kapitalismoari distira emateko *public relations* operazio erraldoiak dira. “Muturreko berdintasun eza daukagunez, muturreko filantropia ere badaukagu”.

Intermon-Oxfam GKEak zabaldu berri dituen datuek erakutsi dute muturreko berdintasun ezarena ez dela esajerazioa. Munduko 62 pertsona aberatsenek ondasun gehiago daukate 3.600.000.000 txiroenek baino. Are larriagoa da ikus-tea egoera txarrera doala: mundutarrren erdiak adinako ondasun osatzeko 2010ean 388 aberats behar ziren, 2011n 177... 2014an 80 eta 2015ean 62.

Nola baimentzen dugu herritarrok filantrokapitalismoa? Linsey McGoey

soziologoak zenbait esplikazio aurreratzen du. Neoliberalismozko azken hamarkadotan egia eztabaidea zina bihurtu da esatea enpresa pribatua efizienteagoa dela publikoa baino, eta honen hutsuneak azkenean hark bete behar dituela. Benetako egia ezkutatu: Bill Gates eta gainerako oligarkak funtsean Estatuaren laguntzari esker aberastu direla, patente, kontratu publiko, pribatizazio eta abarri esker. Ate errotetan gizentzen diren politikari-enpresari konplizitatez, etekinak korporazioek eraman dituzte, galerak oro estatuen esku lagata.

Globalizazioarekin, gainera, kapitalismo basatiaren kalte odoltsuenak urrutiko herrialdeetara lekualdatu dira, herrialde aberatsetako jendeak desmobilizatuz. Ez zen horrela XIX. amaiera-XX. hasieran. “Andrew

Carnegie altzairuaren erregea –dio McGoeyk– lehenbizikoz mintzatu zitzaizenean beste aberatsei beren altxorren zati bat pobreen laguntzeko erabili beharraz, langileak greba eta liskarretan ari ziren Carnegieren burdinoletako lan-baldintza gogorrenatik kexu. Langile haiek herritarrak alde zeuzkaten”.

Aberats ustez karitatetsu haiek ere bazituzten aldekoak herritarren artean, bai propagandista fidelak ere, baina eszeptizismo handia zabaldua zen haien sakoneko asmoez. Garai hartan baziren idazle handiak, hala nola Oscar Wilde edo Charles Dickens, saiakeran bezala fikzioan satirizatu eta salatu zutenak orduko filantropia, berdintasun eza lausotu ez baina handitzen zutelako. “Gaurko literatura irakurrienean nekez aurkituko duzu horrelakorik”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Peli Romarategi, misiolari artista

«Ebanjelizazioa edertzea omen zen nire egitekoa Ekuadorko misioetan»

Zer gordetzen da gure herrietako zahar-etxe, komentu eta gisako ezkutalekuetan? Zenbat istorio eta historia, zenbat bizipen gozo eta mikatz, zenbat poz eta neke? Peli Romarategiren biziak bost toles ere baditu.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Peli Romarategi, Fernandez de Romarategi.

Bai, bai, zuzen zaude. Peli Romarategi agertzen naiz beti toki guztietan, baina badakizu, arabarrok deitura konposatuak ditugu. Fernandez de Romarategi Lanas Bengoa Ruiz de Gordo naiz. Aita Otazukoa nuen, eta ama, berriz, Apellanizkoa.

Peli duzu ponteko izena, ala gero euskaratua?

Ez, ez, Peli naiz ni jaiotza-agirian ere. Nahiz eta Peli izenaren ondoan Felix jarri zuten parentesi artean. Izen sabindarra Peli. Egia esan, gurean zaharrenak Isabel izena zuen, baina haren atzetik etorri ginenok Sabinoren modako izenak jaso genituen: Kekile, Gergore, Julen, Sabin eta Peli. Gurean aita oso abertzalea zen, eta euskararen zalea ere bai. Euskaraz ez bazekien ere, txera berezia zion.

Aita Otazukoa, ama Apellanizkoa. Nekazariak izango ziren, hortaz.

Haien gurasoak seguruago. Ni jaiotzen zireneko Gasteizen bizi ziren. Aita eba-

nista genuen, eta Bonilla etxe ezagunean egin zuen lan. Ama, etxean, gu hazten. 1922an jaiotzen ni, Errementari kalean, Gasteizko alde zaharrean, orain Ahateen iturria dagoen horretan. Baina, jakina, zeharo aldatua dago dena. Ingaru horrek Aldabe du izena orain, baina orduan Santo Domingo zen hori. Aldabe gabe, Aldabe zen sasoi hartan; bene-benetako herri txiki bat, esaterako, etxetoak, ortuak, oiloak han, txerriak hemen...

Ikastola bat izan zen zuen etxetik ez aparte, Zapatari kalean.

Bai, hara ere joan nintzen. Lehenengo Campilloko [Landatxo] eskolara joan nintzen, eta gero berriz, Alira bideko eskolara. Gero, ikastolara. Etxean abertzaleak ziren, eta baten batek esana izango zion zer edo zer gure aitari, eta Soliren [Solidaridad de Trabajadores Vascos, ELA] ikastolara hasi nintzen. Frantzisko Xabier Landaburu diputatuaren arreba izan genuen irakasle. Oso andereño ona. Zapatari kalean baino lehen Bakea kalean egon zen ikastola, etxebizitza batean. Baina etxe txikia zen, eta umeak,

berriz, 20, 40. Jolas ere korridorean egiten genuen. Gero, Zapatarira joan ginen. Leku handiagoa han, eta baratzea ere bai han ikastolak. Nik hamar, hamabi urte izango nituen. Goizez eta arratsaldez joaten ginen hara.

Eta zer izan zen Gaztetxu?

Iluntzean joaten ginen lekua. Jende pila bat joaten zen hara. Neska eta mutiko haziak, ez bakarrik umeak. Dantza, antzerkia eta horrelakoak egiten genituen. [Lopez] Uraldetarrena zen etxea, eta Isabel Lopez de Uralde buru, gero moja joan zena Berrizko mesedetakoekin.

Han ikasi zenuen dantzan, beraz. Eta horrela zaitugu dantzari 1934ko Aberri Egunean, Gasteizen.

Bai. Gaztetxuetoakoak ginen, eta dantza egiten genuen jai egun handietan. Aberri Egun hartan bai, eta Prudentzio Deunaren egunean ere bai, adibidez. Eta mitinetan ere dantza egin genuen, Espejon eta Izarran, adibidez. Txikia nintzen, baina akordatzen naiz horretaz. Horrelako giroa zegoen Gasteizen eta Araban sasoi hartan. Gero, gerra etorri zen, eta



Peli Fernandez de Romarategi

1922, Gasteiz

Kasik mende oso bateko historia bizia da Peli. Gasteizen gerra aurreko lehen ikastola, Pilar Landaburu, Gaztetxu mugimendua, 1934ko Aberri Eguna, gerra ostea, errepresioa, erresistentzia, euskara, Ekuadorko misioak, itzulera... Artista da, oroz gain, Peli, eta Ekuadorko Ventanas, Ambato, Bahia eta beste hainbat herri eta herrialdetan utzia du bere ondasun (ez) guztia, eta Urkiola gaineko santutegiko beirateak, Astigarragako elizakoak, edo Abaltzisketakoak dira froga. Jakingarria, bestalde, Juan Ramon Etxebarriaren liburua: *Vida y obra artística del misionero vasco Peli Romarategi*.

kito dena. Aita ere gerra aurrean hil zitzaigun, gaixorik, eta betikoa: batzuk kartzelara, beste batzuk erbestera. Gure anaia Julen Bilbon eduki zuten. Koinatuetakoa bat, kartzelan. Beste bat, atzerrian... Ni etxeko txikiena nintzen, eta Gasteizen.

Zer giro izan zen Gasteizen gerra garaian eta ostean?

Ez zen giro! Badakizu Azazetara eraman eta nola hil zituzten hamasei lagun haiek.

Hemen bertan kontatu zigun historia hori Jesus Estrada Arrondo zenak [Argia, 2087 zbkia.] Errepresioa gorabehera, zuek ez zineten geldirik egon. 1944an *bosteko bat osatu zenutela irakurri dut, erresistentzia helburu.*

Soldadutzatik etorri berri nintzen. Martin Kortazar adiskidea nuen, eta berak eman zidan Pax Romanaren kongresuaren berri. Gasteizen zen egitekoa [1946, uztailak 18], eta Frantzisko de Vitoria-ri omenaldia egitea eta monumentua inauguratzea ere pentsatuta zeukaten. Orduan, guk [Iñaki Olano, Martin Kortazar, Quintana, Manuel Garcia de Andoin, Eugenio Saenz Lanaz eta Peli bera] ekin-tza bat egitea pentsatu genuen, jende asko baitzen etortzekoa: unibertitate askotako irakasle ospetsuak eta zenbait herrialdetako agintariak. Zapalkuntza egoera salatzea pentsatu genuen guk, eta ikurrinaz eta panfletoz bete genuen Senda pasealekua, Frantzisko de Vitoria-riaren monumentura bide osoa. Ikurrinak jarri genituen pasealekuko arboletan: hartu soka bat, lotu mutur batean ikurrina, bestean harria, eta arbola adarretan zintzilik utzi genituen gure ikurrinak! Kar, kar...

Zer zioten panfletoek?

“Preso politikoen askatasuna”, “Gerra bukatu da, soldaduak etxera”, “Ateak ireki erbesteratuei”, “Kito kontzentrazio-esparruak eta lan behartuak”... Eta unibertsiteetako irakasleak eta atzerriko agintariak zeramatzan autobus barrura panfletoak bota genituen.

Baina harrapatu egin zintuzten.

Bai, bata bestearen atzetik. Urte eta erdi eduki gintuzten Bake kaleko kartzelan. Legez kanpoko elkartzeta eta propaganda ilegala egotzi ziguten. Kartzela eta isuna. Horrela zen garai hartan. Eta

gero, betikoa, behin kartzelara eraman-enez gero, hurrena zerbait gertatzen zenean, barrura! Arriskutsuak omen ginen. Eta Francoren aldeko agintariren bat Gasteiza etortzen zenean, gu beti barrura. “Badaezpadako neurria” omen zen. Hainbat aldiz eduki ninduten kartzelan, Gasteizko lagun askorekin batera.

Famatua da garai hartako Gasteizen Bruno Apodaka polizia zitala.

Gaiztoa, bai. Fama zuen hainbat pertsona hil zituela hemen inguruan. Berak esaten zuen, batere lotsarik gabe. Mutikotan harekin ikasitakoek esan ere egi-

Gerra

“Aita oso abertzalea zen, eta beti zen euskararen aldeko, nahiz eta euskaraz ez zekien. Baina sinatu behar zuenean ere, ez zion barkatzen: Romarategi beharrean, Erromarategi sinatzen zuen. Horregatik gure izenak ere, Sabinorenak. Baina, jakina, gerra ondoren *Pelik ez zuen balio. Felix behar zuen*”.

Ebanista

“Aita ebanista nuen, eta lanbide horixe ikasi nuen nik Gasteizen. Agirre etxean egin nuen lan, oso tailer handia; ebanisteria, arotzeria, pertsianak... lan asko egiten zen han. Esate baterako, polizia bertara etorri zitzaidan atxilotzera. Egurra latz eman zidaten orduan”.

ten zuten: “Bruno? Eskolako tentela zen eta!”. Gure aitak Gaueko adorazioan edo halakoren batean ezagutu zuen. Ni harrapatu nindutenean, hantxe Bruno, eta esan zidan: “Gizon ona zen zure aita. Baina nazionalista”. Ez zen oso gizon argia, ez, Bruno hura.

Andoni Urrestarazu *Umandi* ere harrapatu zuten Frantzisko de Vitoria-riaren omenezko ekitaldien barruan. Harekin hasi zinen euskaraz ikasten.

Bai. Andonik testu bat idatzi eta Frontoi hotelean ostatua hartuta zeuden kongresistei utzi zien, haien geletara sartuta. Andoni eta beste zenbait lagun ere harrapatu zituzten eta kartzelan gertatu ginen denok. Eta kartzelan hasi nintzen Andonirekin euskaraz ikasten. Ehun ikasgai bete genituen han, libururik gabe. Andoni oso buruargia zen. Lapitza hartzen zuen, koaderno batean idazten, eta guk ere berdin egiten genuen. Oraindik orain esana dut, kartzelan ikasi nuela euskaraz, irakasle onenarekin, Andoni Umandirekin, alegia. Kartzelatik irtenda, Andonik San Antonio kaleko etxean erakusten segitu zuen, eta hara hasi ginen zenbaitzuk. Martin Kortazar, Manolo Andoin eta besteren batzuk. Ni, tartean.

Euskaraz ikasten, ezkutuan, Umandiren etxean.

Bai. Behin baino gehiagotan atxilotu gintuzten, bilerak egiten genituela egotzita. Guk, ikasten ari ginela esaten genien, baina alferrik.

Andoni Perez Cuadrado esana duenez, kartzelan zinen 1951n ere, eta kartzelara baino lehen ere buruan omen zenerabilen misioetarako asmoa. Ekuadorrera joan zinen 1955ean.

Bai, etxeko egoera pixka bat zuzendu eta joan nintzen. 30 urte baino gehiago nituen, eta etxean nire misio asmoa konstatatu nuenean amak lasai joateko esan zidan, eta arrebek ere berdin, beraiek zainduko zutela ama. Eta joan nintzen, misioetara, baina ez apaiz. Hara joandakoen artean batzuk apaiz ziren, eta beste batzuk sekularrak. Ni hauetakoa nintzen. Neska eta mutil ginen sekularrak. Gu Ekintza katolikokoak ginen, eta giro hartan misioak oso gauza bizia ziren. Aita santuak ere misioak bultzatzen zituen. Orain ez da ulertzen, baina orduan, eta Ekintza katolikoaren barruan



“Ekuadorko misioetan nengoela, nire tailerrean pasatzen nituen orduak, Kristo indigenak, amabirjina amerindiarrak, Asisko Frantzisko, eta natura, argia eta kolorea. Horretan eman nuen denbora”

egonda, kasik gauza naturala ere izan zela esango nuke. Talde handi bat osatu genuen Ekuadorren. Oso jende ona aurkitu genuen tropikoan.

Ekuadorko jendeaz ari zara?

Bai. Nekazariak. Soro lanean beti, jende behartsua oso. Ez genuen hiririk zapaldu, beti ginen soro eta landetan. Joan orduko, etxeak eta elizak egiten hasi ginen. Ni ebanista nintzenez, banuen egitekorik franko. Katekesia ere erakutsi izan nuen.

Hala ere, zure egonaldia Ekuadorren arteak markatzen du. Hainbat marrazki, mosaiko eta beirate utzi zenuen bertan.

Denetatik egin nuen. Kartzelan ikasi nuen marrazkia, eta posta bidezko ikastaroa ere egin nuen gero. Ekuadorren ere nire lagunak laster konturatu ziren nire zaletasunaz, eta artelanak egiten jarri ninduten erabat. Jose Maria Zunzunegi zestoarrak bultzatuta, esango nuke. Gero, Ambato herrian nengoela, Chimborazo pean, seminarioko gazteei erakusten, Jose Luis Iriondo frantziskotarrak mosaikoak egiten erakutsi zidan. Oso artista handia zen Iriondo. Hasi nintzen, eta laster ez nuen besterik egin artelana baino. Ebanjelizazioa edertzea omen zen nire egitekoa Ekuadorko misioetan, eta nire tailerrean pasatzen nituen orduak, Kristo indigenak, amabir-

jina amerindiarrak, Asisko Frantzisko, eta natura, argia eta kolorea. Horretan eman nuen denbora.

Jose Luis Iriondok erakutsita?

Baina ez Iriondok bakarrik. Tartean-tartean Ekuadortik Euskal Herrira etortzen nintzenean, bata eta bestea ikusteko baliatzen nuen denbora, ikusteko eta ikasteko. Erroma, Florentzia, Venezia, Paris, Mexiko, New York, Bartzelona, Madril... leku askotan izan nintzen. Etorri nintzen batean, arkitekto batekin hizketan –San Roman abadea zen–, Madrilgo tailer batekin harremanetan jarriko ninduela esan zidan. Eta halaxe joan nintzen Madrilgo Atienzaren taile-



Azken hitza: Tortura

“Peli ebanista zen, artista hutsa. Halaxe da oraindik ere. Pueyo zen orduan polizia, eta hebain-hebain egin zuen Peli, kolpeak han eta hemen. Esku-bilurrak jantzita sartu zuten ziegara. Biok bakarrik ziegan, zer moduz zegoen galdetu nion, min handia ote zuen eta Pelik ‘Ez da ezer, ez da ezer’, ahotsa ahul eta mehe zuela”. (Andoni Perez Cuadradorren lekukotasuna).


rrera. Real Madrileko futbolariak ziren bi anaia. Han ere ikasi nuen.

30 urte baino gehiago egin zenituen Ekuadorko misioetan.

Eta gero etorri egin nintzen. Joseba Lejarza lekeitiarrak, Ekuadorren urte asko egindakoak, Urkiolara etortzeko gonbita egin zidan 1976an edo. Urkiolan pozik ni. Han ere ni neure lanean, beirateak eta egiten, eta bizi, berriz, euskaraz, baina nahiko lanarekin, han bizkaieraz egiten baitzuten. Ekuadorren ere hitz egiten nuen nik euskaraz, bateko bizkaitar eta besteko giputzarekin. Urkiolara etorri, eta pozik ni. Eta eguraldia bera ere, gozo.

Eguraldia ere lagun Urkiolan?

Bai. Nire garaian, Urkiola beti itxita egoten zen, elurra lepo. Etorri nintzenez, hotzik ere ez genuen izan Urkiolan. Nik, berriz, lehengo hotza nuen gogoan. Baina pentsatu ere ez halakorik. 20ren bat urte egin nituen Urkiolan, eta orain dela urte batzuk, azkena, Gasteiza itzuli nintzen, jaio nintzen herrira. Apaizetxean bizi naiz, apaiz ez banaiz ere. Apaiz ez den bakarra naiz etxe honetan. ■




GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA	ALTZO	EZKIO - ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRIA	OLABERRIA
AGINAGA	ARROA	IGELDO	ZERAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA - GOIATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIZTUR	EREÑOTZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	


WWW.ESKOLATXIKIAK.ORG

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.





Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Errenteria-Kolonia-Errenteria

2009. Errenteria. Gizon gazte bat atxilotua izan zen emakume bat bortxatzen saiatzeagatik. Hedabideek erasotzailea Magrebekoa zela azpimarratu zuten; biktimaren jatorria ez zuten zehaztu. Egun batzuk pasa eta gero, SOS Arrazakeriak salatu zuen hiriko magrebtarrek mehatxuak eta jazarpenak bizi zituztela. Lokutorioetatik “alde hemendik!” oihuka ibili zen talde batek emakume etorkin bat eraso omen zuen.

2010. Diario Vasco: “Lau errumaniarrek 14 urteko kartzela zigorra jaso dute, Irunen gazte bat bortxatzeagatik”. Titularrean ez, baina lehenengo paragrafoan esaten zuten neska jatorriz hegoamerikarra zela. Albistearen komentario gehienak xenofoboak ziren. Pentsa: zein izango zen irakurleen erreakzioa, kazetariak biktima ere etorkina zela esan balu titularrean! Eta biktimaren jatorria bakarrik aipatu balu? Eta, “Lau gizonen gazte bat bortxatzeagatik”, soilik idatzi balu?

2015. Kolonia. Alemaniako hiri horretan ehunka lapurreta eta sexu eraso salatu ziren Gabon zaharrean. Bertoko zein kanpoko hainbat hedabidek azpimarratu egin zuten atxilotuen artean errefuxiatu ugari zeudela. Alemaniako Gobernuak bi neurri errepresibo iragarri zituen: errefuxiatuak kanporatzeko legea gogortzea eta kalean polizia gehiago ipintzea. Berrito ere, hedabideetan eta sare sozialetan erreakzio xenofoboak nabarmendu ziren.

Komentario oso interesgarri bat irakurri nuen Interneten: “Erosotutako emakumeen nazionalitateari buruz informatu gaituzte ala denak alemaniarrek, ileoriak eta begi-urdirak direla jakintzat eman behar dugu? Badirudi batzuentzat erasotzaileen nazionalitatea oso garrantzitsua dela, baina biktimen gehiengoak errefuxiatuak izan balira, amorru berdina adierazi



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Brigitte Vasallok *purplewashing* (garbiketa morea) kontzeptua erabiltzen du joera hau definitzeko. Alegia, emakumeen eskubideen defentsa etorkinak kriminalizatzeko aitzakia bezala erabiltzea. Koloniako albisteei buruz idatzi zuen *Pikarako* artikuluan nabarmendu zuen sexu eraso arduradunak “gutarrak” direnean (Sanferminetan, esaterako) gizarteak indarkeria justifikatzen duela

eta asilo politika aldatzea exijituko genuke?”.

Brigitte Vasallok *purplewashing* (garbiketa morea) kontzeptua erabiltzen du joera hau definitzeko. Alegia, emakumeen eskubideen defentsa etorkinak kriminalizatzeko aitzakia bezala erabiltzea. Koloniako albisteei buruz idatzi zuen *Pikarako* artikuluan nabarmendu zuen sexu eraso arduradunak “gutarrak” direnean (Sanferminetan, esaterako) gizarteak indarkeria justifikatzen duela. Vasallok astebetetz milaka irain eta eraso jaso zituen, “moro batek bortxa zaitzala desio dizut” eta antzekoak. Errenterian gertatutakoa gogorarazi zidan: “Gure emakumeak bortxatzen daturik argudioarekin xenofobia elikatzen duten gizonak mozorro barik geratzen dira euren gorrotoa emakumeen kontra ere (etorkinak, arrazakeriaren kontrako aktibistak...) bideratzen dutenean.

2010. Bilbo. Hainbat elkarte feministek bilera bat antolatu genuen indarkeria sexista eta bereziki kaleko sexu erasoak, gizon etorkinei leporatzen ari zitzaizkielako kezkatuta. Aktibista zuriok aurreiritzi horren arrazoia argi geneukan: kalean ezezagun baten jarrera edo eraso matxista identifikatu eta salatzea gutxiago kostatzen zaigula gure etxean bertan, lan esparruan edo gaztetxean bizi ditugunak baino. Eta beste arrazoi bat: gizartearentzat lasaigarria da indarkeria matxista “beste”, “kanpokoen” arazo dela pentsatzea. Ordea, feminista etorkinen txanda heldu zen, eta gizon autoktonoekin bizitako egoera matxista eta arrazistak kontatu zizkigutenean aho bete hortz gelditu ginen. Esaterako, kalean norbait itxaroten egotea, bertoko gizon bat hurbildu eta txortan egiteagatik zenbat kobratzen zuen galdetzea. Horrelako indarkeriak ez dira hedabideetan agertzen. Erasotzaile horien kontra inork ez luke kanporatze agindurik eskatuko. ■

Erregearen laranjak



Jose Inazio
Basterretxea
IDAZLEA

Haserre dago Don Felipe, eta ez daki disimulatzen. Espainia periferikoak haserretu du bere gorentasuna. Errege-etxean eta hark ordezkatzeko duen Estatu-administrazioan, onartezina da periferia izatea berniz folklorikotik harago doan entitate soziologiko bat. Eta hori da Espainiak bizi duen lurraldetasun-krisiaren gakoa.

Laranjaren azalak –periferiak– eman ohi du fruituaren berri, arbolatik zuzenean hartuta edo dendan erostean; haren distirak, haren usainak, haren leunak edo lakarrak iradokitzen du muinaren nolakotasuna. Baina, hori baino gehiago ere bada geruza biltzaile hori. Azalaren faltan, deshidratatu egiten da laranja, galdu eta, azkenean, usteldu.

Zentroan ez dute hain erraz onartzen periferia horrek muina mamitzen laguntzen duela, gunearren luze-zabalerak definitzeaz gain. Eta hori da arazoaren sustraia. Alegia, ezin onartua laranjak azalaren beharra eta hura zaintzearen premia. Espainia ofizialak ez du ikasi 1978ko Konstituzioak mugatzen duen Estatu Autonomikoaren periferiaren ekarpena: linguistikoa, kulturala, politikoa eta ekonomikoa. Periferiaren baztertze politikoa eta administratibo sistematikoaren aurrean, mugitzen hasi dira azaleko hiritarrak. Eta hor agertu dira lehenbiziko arazo serioak.

Erreakzionatu beharra dauka Don Feliperen Espainiak.

Baldin eta Espainiak bere laranja-azalari benetan eutsi nahiko balio, pentsatu beharko luke premia argia duela plangintza batena, zeinaren bidez bestelako Espainia bat amesten duten herritarrak poztuko lituzkeen, orain arteko mespretxuak ahaztu ez eze, lurralde periferikoen balioak eta beharrak onartu eta euren lekuan jarrita.

Gaur arte ez bezala orain bai elkar hartuta, azalekoek eurek ere pentsa lezakete bidera dezaketela Espainia bestelako bat, indar zentralizatzaile irmo eta ankilosatuei aurre egiteko. Egun arte, periferiatik hiriburura nor bere bidea egin du. Baina, Madrilen transformatzailea izatera hel liteke periferietako indar politikoa antolatua eta kohesionatua bat.

Espainiak bizi duen nortasun- eta erakundetze-krisi sakonetik ateratzeko, badago hirugarren aterabide bat: periferia barik uztea erregearen laranja. Hots, nor bere marmelada egitea bere laranja-azalak landuta. Kasu horretan, nor bere potean sartuko ditu bere azal zatiak bere azukrearekin eta bere kanelarekin. Katalunia hasi da bide hori jorratzen. Biderik onena ote den, eta bakarra, geroak esango du.

Espainia monolitikoak beheka jo duela ematen du. Baina, ikusiko. Periferia guztiek ez dute barne-indar bera. Ezta zentroak ere une oro berbera. ■

Santa Ageda



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Buruan ditudan oroitzapenen arabera, ezin jakin noraino apaindu duen nire memoriak ondotik kontatuko dudana, inbidia galanta sentitu ohi nuen eskola-garaian Santa Ageda bezpera egunean; hain zuzen ere, ikasturte osoan eskolatik kanpora, auzora, ateratzen ginen okasio bakan haietan.

Klaseko lau pertsonak txistua jotzeko ohorea izaten genuen irakasleak hala aukeratuta, *publikoki* txistua jotzeko ordezkari zena duinena ginelakoan, gainerako ikaskideek makilarekin lurra gogoz eta gogor astintzen zuten bitartean.

Nire psikoaalista argentinarrek sintaxi luze bezain dotore batez agertu didanez, mende-

kua hartu nahi izan dut handitan. Orain, makila eskuetatzen dut Santa Ageda bezpera orotan eta, txikitan bizi izandako traumaren ondorioz, txistua jotzen ahaztu zait. Musika-instrumentu bat galdu dut –horren jakitun naiz–, baina lurrari dei kolektiboa egiteko aukera ederki gozatzen dut.

Osasunak eztarria errespetatu artean, ozenki arituko naiz kantari, oleska. Makilaren taupada erritmikoekin uztartuko ditut aspaldiko desira ukatuak eta neguan lurra ernatzeko asmo tribala. Pirinioen beste muturrean agintemakila hartu nahi izan duen Kataluniako herriak bezala. ■

Bi agure edo hiru


Bi gizon zaharren hitzek arreta eman didate oso denbora gutxian eta nahi gabe ere lotu ditut nire gogoan. Bata Facebooken norbaitek zabaldu du eta nik, ikusitakoan, gauza bera egin dut. Bost “datsegit” jaso ditu, baina beste inork ez du atzera zabaldu. Bideoari eman dioten izena: “Arthur C. Clarkek Internet deskribatzen du 1974an”. Clarkek janzki eta gorbata eramaten ditu eta berriro ere, XXI. mendearen bigarren hamarraldian, modan dauden betaurrekoak. Kazetariak XXI. mendearen nolakoaz galdetzen dio zientzialari eta zientzia fikziozko idazleari. Horretarako bere semea eraman du: “Jonathan nire semeak 2001. urtean nik orain dudan adina izanen du”. Arthur C. Clarkek Jonathan hartzen du adibidetzat, 27 urte geroagoko ordenagailu edo, oro har, makinekiko harremanaz aritzeko.

Esan gabe doa ikaragarri asmatzen duela oraingo bizimodua deskribatzen. Ez du esaten Jonathanek giza harremanak nola, zeinen ezberdin, ulertuko eta biziko dituen. Bere hitzetan ez dago azaltzen duen teknologiak eragindako itzalik, ez dago ezkortasun aztarna handirik (hori eleberrietarako uzten du). Pentsa genezake garaiari dagokio la baikortasun teknofiloa edo pentsa dezakegu bere buruari aplikatzen diola berak asmatutako hiru legetako, Clarke legetako, lehena: “Zientzialari gailen baina zahar batek zerbait posiblea dela adierazten duenean, ia segurua da arrazoia izatea. Zerbait ezinezkoa dela adierazten duenean, oso litekeena da oker egotea”. Lege honetan beti bitxia suertatu zait “baina zahar” zehaztapan hori. Oraindik (adinagatik edo) ez naiz gai ulertzeko zer ñabardura dakarkion baieztapenari gehikuntza horrek.



Angel Erro

IDAZLEA
@angelerro



Antton Olariaga

Bigarren agurea Arthur C. Clarke baino zortzi urte gazteagoa da, baina ez zaigu 1974tik mintzo, gaur egunetik baizik, beraz, askoz zaharrago ari zaigu Interneteko sare sozialek ekarri gizarte berriaz, askoz zaharrago eta, agian norbaitek hortik ondorioztatu lukeenez, askoz ezkorrago ere. Sare sozialak –diosku– tranpa dira; ez dute gizartea ezaugarritzen duen ezberdinarekiko benetako elkarrizketarik, ez dute gaitasun sozialetan trebatzen, ez dago egiazko konfrontaziorik –di-da ezaba ditzakezu bestela pentsatzen dutenak–, sare sozialek jendetasunaren itxurapean nork bere buruarengan zerratuagotzen dute. Dena den, Zygmunt Baumanen ezkortasuna ez diot zahartasunari, zaharrek berriari ohi dioten izuari, egotzen. Akaso sare sozialekiko mesfidantzan bizi baikara denok, baina sare sozialetan murgilduta bizi garenek ere, atzoko pentsaeradunok biharko tresna bagenu bezala eskuen artean, eta horrek baikorrena ere durduza batean edukiko balu bezala.

Ez-moduan bizi gara, gureak ez diren (Jonathanen seme-alabenak badiren) bitartekoak darabiltzagula, zahar-goiztiarturik. Tresnek oraindik ez gaituzte guztiz egin beren moldera. Honakoa ez da apokaliptikoa; inprentak edo burdinolek ere aldatu gintuzten, teknofoboek salatu ez arren. Ez moduan bizi garelako aztarna da sare sozialetan gehienetan jokaera arauturik gabe ibiltzea, gizalegea zein den asmatu ezinik. Nola kudeatu –benetako kasuak dira– izeba mojak sare sozial batean “adiskidetasuna” eskatu izana; nola, bizitza errealeko adiskide batek birtualki zure berri jakin nahi ez izatea, bizimodu bikoitzeko gay aldea ongi ezkututzen asmatzen ez dakien gertuko ezagun armairutuarena. ■

Krisiaren “gerra” balantzea (2008-2015)

Azken datu makro-ekonomikoen diotenen arabera, krisitik irten gara eta benetako lehen “kimu berde” famatuaren aurrean izan gaitzake. Eztabaidatu gabe fase horretan zein neurrian gauden ala ez, une egokia izan daiteke zein izan den krisiaren emaitza eta zer den datorrena aztertzeko.

Egia esateko, krisiak ez du gauza berri gehiegirik ekarri, eta aurretik zetozen hainbat tendentzien areagotzea ekarri du, azken urteetan horien abiadura azkartu baino ez du egin. Horien artean, akaso, esanguratsuenak da gizarte-ezberdintasunak are nabarmenagoak direla, eta gehien duten eta gutxi dutenen arteko tartea zabaldu baino ez duela egin.

Zentzu horretan, argi dago zein diren galtzaile nagusienak: krisia baino lehen gure gizartearen behe postuetan kokatzen zirenak. Klase ertainak eta ertain-altuek askoz hobeto eutsi diote krisiari eta askotan ez dute kalte gehiegirik izan. Beste era batera esanda, lanaren kapitalen bizkar bizi direnen porrota eman da –langileria, prekarioa– eta aldiz, kapitalen errenta dutenen edo gutxienez bien uztarketa ahalbidetu dezaketenen gorakada izan da. Ezin dugu ahaztu zein izan den burtsaren bilakera azken bi urteetan.



Gorka Moreno Márquez

EHUKO IRAKASLEA

Oso nabarmena da azken urte hauetan soldatetan ematen ari den jaitsiera, nagusiki langile berriei dagokienean

Hori guztia ulertzeko, argi dago, gizarte-politiketan eman diren murrizketak kontuan hartu behar dira, baina hau bezain garrantzitsua da lan-merkatuan eman den eraldaketa, azken urteetako lan-erreformen bidez. Iruditzen zait, sindikatu batzuk salbu, ez diegula behar bezalako garrantzirik eman lan-erreformei. Erreforma horiek nego-

ziazio kolektiboa eta langileen negoziatzio-ahalmena ahuldu dituzte eta honen ondorioz nabaria da lan-harremanen prekaritatea azkartu dela azken urteetan. Soldaten jaitsierak adibide esanguratsua dira.

Industria da sektorerik aipagarriena, tradizionalki lan-harreman arautuak eta beraz soldata nahiko duinak zituen. Oso nabarmena da azken urte hauetan soldatetan ematen ari den jaitsiera, nagusiki langile berriei dagokienean. Kontutan izanik industria izan dela orain arte “euskal eredu sozio-ekonomikoaren” sostengu nagusienetakoa, nabaria da eredu bera ere zalantzan jartzen ari dela, hau da, soldata altuak eta gizarte-politika zabaletan oinarritutako gizarte-kohesio eredu.

Zoritxarren emaitza larria da, eze-gonkortasuna gero eta handiagoa izango da euskal lan-merkatuan eta soldatak gero eta baxuagoak, honen inguruko hainbat datu agerikoak dira honezkerok. Iraganean, industria dinamika horren aurreko harresia izan zen, baina orain, lan erreformaren ondorioz, industriak beste lan-sektoreen gero eta antza handiagoa du. Hortaz, arlo sozioekonomikoan bederen, Espainiaren gero eta antza handiagoa dugu –eta areago izango dugu–. ■

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Presevo

Europaren ateko ilaratik

Irakeko 2003ko inbasioak desegonkortasun sozial, politiko eta erlijiosoak sortu zituen Ekialde Hurbilean. Gaizki izendatutako arabiar udaberriek lehendik piztuta zeuden suei betagarri eman diote eta eskala biblikoan bakarrik neurtu daitekeen exodoa sortu dute Europarantz.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Andoni Lubaki

@andonilubaki

“Barku bat hondoratzean lehenbizi ihes egiten dutenak arratoiak izaten dira. Gu hondoratzen ari den barku handienaren arratoi horiek gara. Hondoratutako barkuetara ez dira sekula arratoiak itzultzen. Ur azpian dagoena betiko han geratzen da-eta” dio Abdallah Samir 34 urteko mediku siriarrak. Raqqatik ihesi dator bere familiarekin batera eta dotore jantzita Presevoko (Serbia) kaleetan Kroaziara eramango duen taxi baten bila dabil. Bere hitzetan, “Dirua dugu, baita pasaporteak ere. Greziara Turkiako mafiak eta poliziak bultzatuta iritsi ginen. Ez ziguten Turkian gelditzen utzi.







Raqqatik irten eta muga zeharkatzean furgoneta batean sartu eta zuzenean Lesboserako barkuan sartuko ginen tokian utzi gintuzten. 1.500 euro ordaindu genituen behartuta". Gaineratu duenez, "polizia turkiarra eta mafiakoak elkar laguntzen ari ziren, zigarroak ematen zizkieten bata besteari". Emaztearekin eta bi haur txikirekin Norvegia edo Suediara iritsi nahi duela aitortu du. "Alemanian nire herriko jende gehiegi pilatuko dela uste dut. Ez naiz jada nire bizilagunez fio. Arazoak sortuko dituzte eta horrek ezer egin ez dugunon aurka arrazakeria sor dezake. Ez dut arabiarrek dauden tokira joan nahi!" gehitu du mediku gazteak.

Gutxik pentsatzen dute halere Abdallah-k bezala. Gehienek Siriako eta Irakeko gatazketatik ihes egin dute. Bakarrak edo familiekin. "Ez genuen Turkiatik beste inora mugitzea pentsatzen, baina Suruc-eko (Turkia hegoaldeko herririk) kanpamentuan telebista turkiarra ikusten genuen eta bertan Alemaniako behartsu eta kanpotarrentzat nolako laguntzak dituzten ikusita beste asko bezala bertara iristen saiatzea zilegi izango zela pentsatu genuen" adierazi du Asiaha Halil-ek, 47 urteko emakume kurdu-siriarrak. "Surucen mafia turkiarrek barkuan Lesbosera iristea 20 minutuko kontua zela esan ziguten eta poliziek inolako paperik ez zigutela eskatuko. Pertsonako 100 euroren truke Grezian egongo ginela zin egin ziguten" dio haserre Kobanen jaiotako

» Presevo bide kontinentalean sortzen diren arazo gehienetako adibide bihurtu da: arazo sektorialak, mafiak, gainezka eginda dauden instituzioak...

Asiahak. "Ez zen horrela izan eta gure maleta asko kendu ondoren familiako 2.000 euro eskatu zizkiguten. Azkenean 1.200 euro ordaindu behar izan genizkion bitartekaritza lanak egin zituen polizia bati". Atzetik senarra etorri zaio, kristaua da bera eta Ismael du izena. Gurutzea darama lepoko: "Nik egin behar izan nituen kapitain lanak inongo esperientziarik izan gabe. Bi minuturo motorra itzaltzen zen eta itsasoak noraezean eramaten gintuen. Motorra pizten genuenean beste bi minutu genituen berriro itzali arte. Eguraldia zakartzen zihon eta bost orduren ondoren barku greziar batek erreskatatu gintuen. Harrezkero ganaduak bezala garamatzate alde batetik bestera dirurik ez dugunok. Dohain da bai, baina egoten garen moduan ikusita erraz ulertuko du jendeak zergatik diogun ganaduak bezala tratatzen gaituztela" esan du Ismaelek.

Herrien arteko ikusezina

Presevon gehiengo musulmana da eta jatorri albaniarra dute, ez serbiarra. Mazedonia eta Kosovorekin muga egiten duen 12.000 biztanleko herri nekazaria da. Halere berezitasun handi bat du eta Serbiako poliziak ere ondo asko daki hori. "Hemen agintzen duena mafia da, mafia albaniar-kosovarra" dio Mikhailek, Belgradetik ekarri duten polizia gazteak. Berak ere dirua biltzen duenean beste norabait joan nahi du bizitzera, oraindik nora ez badaki ere. "Ezinez gabilta errefuxiatu olde honi aurre egin nahian. Atzo 4.000 eta 5.000 pertsona artean pilatu ziren kale honetan eta bultzaka hasi zirenean aurrean dagoen hesi hori erori eta hiru pertsona hil ziren. Mafien errua da hori. Mazedoniako mugan zain izaten dituzte autoarekin eta paper faltsu batzuk ematen dizkiete pertsonako 50 euroren truke. Ilararen atzean daudenean uste dute aurrerantz joan daitezkeela paper horiekin. Baina ez da horrela. Ia denek izaten dituzte paper faltsu berdinak eta orduan liskarrak sortzen dira jatorri desberdinetako pertsonen artean. Guk hemen ezin dugu ezer egin, giroa nahasten denean baretzea ez bada. Gainera Mazedoniak ez digunez ofizialki zenbat datozen esaten ere ezin dugu beste ezer jakin" gehitu du Mikhailek ilarara begiratuta eta hasperen egin ostean. Adierazpen horrek agerian uzten du Balkanetako herrien arteko ezinikusia. Kroaziako Gobernuak Ranko Ostojic



barne ministroaren bidez adierazi zue-
nez, Serbiak ere ez dio esaten zenbat
errefuxiatu datozen eta ondorioz des-
koordinazio handia sortzen da muga
inguruetan.

Espainiako Estatuko Remar Gober-
nuz Kanpoko Erakundeko Juan Carlos
mafiak mugitzen diren toki horretan
lan egindakoa da: “Mazedoniatik sar-
tzen diren errefuxiatuak mafiako bu-
ruzagi baten lursailetik sartzen dira.
Ez dakigu nork erabaki zuen horrela
egitea baina trenez Presevo erdiraino
iritsi zitezkeen. Aldiz, 10 kilometrora
gelditzen dira lursail pribatu baten on-
doan. Bertan mafiako buruzagi horren
langileek errefuxiatuak engainatzen
dituzte, eta gero datorrena dator. Ma-
fiaren aurka joan ezean ez dago ezer
egiterik” dio atsekabetuta Juan Carlos
madrildarrak.

Presevo inguruan mafia albaniar-ko-
sovarrak indar gehiago du gobernuak
baino. Herriatik Mazedoniara doan bi-
dexka bat hartzen duen orok ikusiko
ditu luxuzko etxe erraldoiak. Getxoko
Neguri auzoaren parekoa dela esan dai-
teke, diferentzia bakarrarekin: etxe de-
nak hutsik daude. Izenik esan nahi ez
duen artzain batek dioenez, “Kanpotik
ekarritako diruarekin etxe hauek egiten
dituzte poltsikoko dirua garbitzeko. Ko-
txe garestiak ere erosten dituzte, baina
gero Alemania eta Frantziaren moduko
tokietan bizi dira. Hona bertako lanak
bukatu edo kartzelatik askatzen dituz-
tenean etortzen dira”.

ERREFUXIATUAK ETA TRAOLAK

Kazetaritza falkutate denetan erakusten
dute albiste, erreportaje edo kronika bat
idaztean ingelesezko 5 W-ei erantzun
behar zaiela: *Who* (Nork), *Where* (Non),
Why (Zergatik), *When* (Noiz) eta *What*
(Zer). Orohar bost galdera horiei eran-
tzuten zaie testu guztietan, hala ez bada
argi utzi beharra dago ekuazio horretako
inkognita zein den, zintzo jokatu nahi
bada behintzat.

Errefuxiatuek helmuga eta amets du-
ten Europa honetan 2015eko ekainean
orduro 25.000 txio idazten zen #refugees-
welcome traolarekin batez beste. Madril-
go Puerta del Sol plazako metro irteeran
Bienvenidos refugiados irakurri zitekeen
kartel handi batean. Facebookek (Twi-
ter bezala gizartea nondik nora dabilen
ikusteko barometrorik onenak) kanpai-
na erraldoia jarri zuen martxan eta perfil
gisa errefuxiatuen etorreraren logotipoa
ezartzera gonbidatzen zintuen ekainaren
8ko astean. Gizarte zibila milaka pertso-
nari ongietorria egiten hasi zen. Batzuk
Greziako Lesbos irlan Turkiatik bitzta
arriskatuz itsasoa zeharkatuta zetozen
famili osoei salda beroa eskaintzen hasi
zitzazkien, beste batzuek aldiz beren
etxeetako atea ireki zizkieten giza esku-
bideen “paradis” den Europar Batasun
honetan babes hartu zezaten (Alemania-
ko bikote batek adibidez hainbat nazio-
tako 20 pertsona hartu zituen etxean).

Eliteko politikariak noraezean harrapatu
zituena. Egunean milaka pertsonak guru-
tzatzen zuten europar santutegiko muga
eta uztaila bukaeran, krisi humanitarioa
areagotuz zihoala ikusita goi mailako bi-
lera bat antolatu zuten oportetarik buel-
tan zetozenarako, erabaki bat hartzeko
kapazak izango ziren ikusteko. Egunean
2.500 eta 3.500 pertsonak lortzen zuten
Europar Batasuneko kanpoko mugaren
bat gurutzatzea, eta gure “ongizatearen
gizartea” arriskuan ikusi zuten askok.

Artikulu hau amaitzen ari naizen une
berean interneten arakatzan nabil eta
Twitter irekita dut. Ekainean Eslovenia
eta Austriako muga batez beste 3.165
pertsonak zeharkatu zuten egunero
Sentilj hiritik, Esloveniako Gobernuaren
datuen arabera. Abenduan, aldiz, 3.087
errefuxiatu igaro ziren batez beste. Datu
horiek “Balkanetako bidea” egin duten
errefuxiatuen datutzat hartu izan dira,
Hungariak bere mugak itxita izan bai-
titu eta gobernu alemaniarrak zenbaki
horiekin egiten ditu Municheko harrera
zentroko kalkuluak (beti ere datu ofizialei
jaramon eginda). Ordu bete pasa da, In-
ternet irekita dut eta #refugeeswelcome
traolak 1.287 sarrera izan ditu. Urrun be-
netan ekaineko 25.000etatik, errefuxiatu
kantitateak bere horretan badirau ere.
Lau W aurkitu ditut, baina bat falta zait.
Why, zergatik?

“Presevo ondoren ez dakigu nora eramango gaituzten baina hemen baino hobe egotea espero dugu” dio Mohamed siriarrak. Homs-etik datorren gizon honek errefuxiatuak nazioaren eta sexuaren arabera banandu beharko lituzkeela dio, “arazoak egon ez daitezzen hobeto elkar ez ikustea ere”. Iraniarrak, afganiarrak, siriarrak, irakiarrak eta abar lerro berean izateak liskarrak sortzen ditu. Batak besteari bere egoeraren errua leporatzen dio eta bide kontinentaleko toki askotan borrokak eta atxiloketak egon dira. “Arrazakeria handia dago euren artean ere. Siriarrak nahiko zintzo jokatzten dute baina afganiarrekin beti arazoak ditugu. Ez dute lerroan mantendu nahi, ezer esanez gero biolentzia erabiltzen dute zure aurka” dio Israel Remarreko gazte boluntarioak. Mikhail polizia serbiarrak aldiz, kontrakoa esaten du: “Siriarrak eta irakiarrak dira arazo gehien ematen dutenak. Beste errefuxiatuak baino gehiago direla uste dute eta horrela esaten dizute: ni sunita naiz eta besteak xiitak, nik egon beharko nuke aurrena”.

Presevo bide kontinentalean sortzen diren arazo gehien adibide bihurtu da: arazo sektarioak, mafiak, gainezka eginda dauden instituzioak, eta abar. Herriaren gehiengoa musulmana izanik ez dago bertako laguntzaile boluntarioirik, “denak hemendik kanpokoak dira, oraindik ez dugu bertako autoritateekin hitz egiterik lortu, ezta hemengo biztanlerik lanean ikusi” dio Mugarik Gabeko Medikua GKEko koordinatzaile den Sebastien Army frantsesak. “Egoera ez da ona, eta eskerrak ez duen eguraldi txarrik egiten. Negua gogorra izan ohi da hemen eta ez dakit zer gertatuko den iristen denean” gehitu du. ■



AIARALDEKO TOPAKETA LALDIO

URTARRILAK 30, LARUNBATA

12:00etan **BERTSO-POTEOA**
Basalarrina elkartetik hasita

14:30ean **BAZKARIA**
(7€) Basalarrina elkartean
Izena emateko 677011098

16:30ean **KOPLA LEHIAKETA**
Basalarrina elkartean

www.bertsozale.eus/araba

ELIKADURA “ETIKOA”

Askekintza: “Gure gorputzak animalien hilerrri dira”

Murtxikatzen duguna baino gehiago da plateran dagoena, bizitzeko era bat, prozesu luze baten sintesia: animalien ustiapena, esklabotza, heriotza... gogor mintzo dira beganoak. “Kultur ondareak animalien eta ama-lurraren esplotazioan oinarritutako elikadura izatera eraman gaitu”. Jaten duguna omen gara.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Donostiako Askekintza Animalista taldeak giza espeziekoak ez diren animalia diskriminatzen dituen mundua deskribatzen du, gizakion onurarako erabiltzen ditugun heinean, izan elikadura, arropa, kosmetika edota aisialdian. Sentitu, sufritu eta gozatzeko gaitasuna dugunon arteko parekidetasuna bultzatzen dute: “Animalia guztiak berdinak gara, izan bi hanka edo lau. Hor-taz, parekoa hil eta jatea bidegabekeria da eta ezin da justifikatu”. Kontzientzia hartu eta errealitate espezista hau aldatzeko lehen pausoa beganismoa dela azpimarratu digute, esplotazioa eta sufrimendua ekiditen dituen “elikadura etikoa”. Bi hitzetan laburtu aldera: animaliangan jatorria duen produkturik ez dute kontsumitzen beganoek, zorrotzek ezta arrautz eta esnerik ere.

Haragia, esnekiak, arrautzak, ez-tia, arraina... Produktu horiek guztiak animaliangandik edo “egoera esklabo batetik” eratorriak dira. Hori aurrera daramanak bezainbesteko erantzukizuna jaten duenak daukala adierazi



ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA

digu animalien eskubideen aldeko taldeak: “Animalia-produktuak kontsumitzen baditugu, haien esklabotza eta heriotza aitortzen dugu”. Horregatik, animalia janari bilakatuko ez duen elikadura bultzatzen dute. Espezismoaren gaia mahaigaineratzeak gero eta jende gehiago animatu du pauso hauek ematera eta, ondorioz, “esplotaturiko animalien kopurua” jaisten ari da.

Elikadura desegokiak eragiten dituen gaixotasunei aurre hartzeko parada eman eta gizaki, animalia eta naturarentzat erabat osasungarria dela diote, Euskal Herriko eta atzerriko nutrizionista eta dietista elkarteek eta hamaika pertsonen bizi ereduek hala demostratu dutela, nahiz eta kontrako ahotsak izan ere badiren. Era berean, kontuan hartu beharreko batzuk aipatu dizkigute. B12 eta D bitaminez elikatu behar dugu gorputza. Barazki ekologiko, elikagai aberastu, fruitu edota uraren bitartez lor ditzakegu. “Garbi” jateaz gain, kirola egiteak, naturarekin harremanetan mantentzeak eta ongi deskantsatzeak

PROPOSAMENA ASKARI BEGANO GOXOAK

Edonolako pizzak, kalabaza opiltxoak, sagarerreak, arroz tostadak, gerezi gelatina, izozkiak, fruitu eta kinoa kremak, sojazko jogurtak, fruitu lehorrak, ahuakate eta txokolatzeko musa, almendrazko gailetak, mahats tarta, txokolate budina, fruituzko batidoak eta abar. Interneten errezeta pilo aurrkitiko duzue.

ere eragina dauka norberaren osasunean.

Hala ere, beganismoa espezismoaren aurkako jarrera bat dela argi utzi digute eta ez soilik elikadurara mugatutako zerbait: “Beganismoa jarrera politikoa da. Soilik hori jarraitzen duenak lortuko du animalien askatasuna errespetatzea”. ■

Lander Martinez (Ahal Dugu-Podemos)

“EAE-N GOBERNU BERRIA ERATZEA DA GURE HELBURUA”

Gasteiz, 1989. Ingeniari informatikoa da. Familia abertzalean hezia. Euskara etxean eta ikastolan jaso du. Unibertsitateko ikasketek Bilbora bideratu zuten duela bederatzir urte. Ahal Duguko kidea da. Hiru urtetarako konpromisoa hartu du Bilboko Ahal Dugukin. Hiriburuko idazkari nagusia da. Espainiako hauteskunde orokorretako kanpainaren koordinatzailea izan da EAEn. Otsail-martxoan alderdiaren kongresua eginen dute EAEko idazkari nagusia aukeratzeko. Lander Martinezek esan digunez, berak ez du kargu horretarako bere burua aurkeztuko.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BALNCO

Zer dela eta politikan?

Politika betidanik interesatu zait. Etxean politikaz asko hitz egiten genuen, orain konturatu naiz horretaz, orduan ez nuen horren kontzientziarik. Ikastolan [Gasteizko Olabide] ikasle onaldarrikapenen aldeko lanetan eta borrokan aritu nintzen. Esate baterako, ikastoletan ez genuen greba egiteko eskubiderik.

EAEko Ahal Duguren barne antolamendua hizpide: sektore ofizialistako kideztat hartu behar al zaitugu?

Zer da sektore ofizialista? Datorren hilabeteko kongresuan aurkeztuko gare-nok azken hauteskunde kanpainan aritu gara. Denok bat egiten dugu ko puntu nagusietan. Une honetan, kontua da gure barne antolakuntza denok batera ulertzea. Ez dago sektore ofizialik.

Beraz, kongresuan ez duzu ikusten alderdiaren homogeneotasunari eusteko zailtasunik.

Homogeneotasuna ere nola ulertzen den. Noski, Ahal Dugu ez da homogeneoa. Baina, uste dut ez dela ona ere

erabateko homogeneotasunik izatea. Era berean, ez dut sektore ofizialistakotzat kalifikatua izatea nahi. Ez Bilbon ari garenek [Eduardo Maura Bizkaiko diputatua eta bera hurbilekoak dira alderdian], ezta idazkari nagusia izateko aurkeztuko diren beste hautagaiak ere.

Zu izan zaitzake idazkari nagusia?

Ez. Ez naizelako aurkeztuko.

Zer antolamendu mota nahi duzu EAEko Podemosen?

Kanpainan ikusi dudananaren ildoan eratu nahi nuke gure alderdia. Azken hiru urte hauetan gure zuzendaritza osatzeko nolabaiteko homogeneotasuna behar izan dugun arren, azken urtean herriz herri eta herrietako zirkuluetan lan handia egin da. Beraz, nire gusturako, tokian tokiko taldeei utzi behar zaie beren lana egiten, hori oso garrantzizkoa da. Herrietako kideak uzten baditugu beraien lanetan, ekitaldiak eta bilerak antolatzen, taldeek oso ongi funtzionatzen dute. Beraz, gure oinarriak indartu behar dira, ulertu behar da uneon

erakundea eraikitzen ari garela, kontua ez da sektoreka banatzea, bat bestea- ren kontra jardutea, heterogeneotasuna onartu behar da alderdia eratzeko. Ahal Dugu oso plurala da Euskadin. Batasun lana egin behar dugu azken hilabeteotan izan ditugun iskanbilak atzera uzteko [Roberto Uriarte idazkari ohiaren dimisioa]. Laster, berriz ere, primarioak izango ditugu, zerrenda prestatzen ari gara. Gero eta hobeto eratuta gaude. Zorionez, lurralde guztietan baditugu zinegotziak eta diputatuak. Horieta- ko batzuk zerrenda batzuetan izango dira, beste batzuk besteetan. Lorpen handia da hori. Idazkari nagusia izendatu ondoren, EAEko hauteskundeetara begira denok batera lan egin behar dugu.

Zein dira zuen lehentasunak eta helburu behinenak?

Gure helburua Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak irabaztea eta gobernu berria eratzeta da. Eta hori lortzeko argi daukat, Euskadin autonomia izan behar dugula geure lan politikoa aurrera eramateko, eta aldi berean, estatu osoko



erakundea garenez, harremanak mantendu behar ditugu, eta ez bakarrik Estatuko organoekin, beste herrialdeetako organoekin ere bai, konkretuki beste nazioekin, beraien espezifikotasunak kontuan hartuz. Estatuko Podemosekin eta lurralde horietan lan egiten dutenekin konfluentzia batzuk gauzatu dira. Euskadiko hauteskunderi begira, EAJ gailenduko duen erakundea indartu behar dugu. Azken hauteskundeetan hartutako bidean jarraitu behar dugu, hemendik bertatik politika landuz, betiere estatuan ari den alderdi bat garena ahaztu gabe.

EH Bildu garai berri honetan lagun izan daiteke edo arerio?

Guk EH Bildu ez dugu kontrako indartzat jotzen, gai ekonomikoetan eta sozialean bereziki gauza askotan ados gaude. Udalteetan eta batzar nagusietan lan asko batera egiten dugu, hainbat gai elkarrekin landu dezakegula ikusi dugu. Noski, bake eta normalizazio arloan, indarriaren arazoan eta ildo independentistan iritzi ezberdinak ditugu. Dena den, guretzat argi dago, EH Bildu aldaketarako alderdia da, eta lan egiteko eskua luzatzen diogu. Gu denekin lan egiteko prest gau-

“Ez da nire esku, baina nik ez nuke PSOErekin gobernatuko. Ez da unea”

“Gure aldetik erabakitze eskubidea bermatzeko borondatea dago, estatua plurinazionala da eta hainbat puntu adostu daitezke”

de egoera ekonomikoa eta soziala hobetzeko, eta dudarik gabe, zentzu horretan alderdi hurbilena EH Bildu da.

EAJren alternatiba izateko, gobernu berria osatzeko, EH Bildu lagun izan liteke.

Ez dakit. Oraindik ere, gauza asko falta da horretan bat egiteko, goizegi da gure burua gobernu berri horren jokalekuan ikusteko. Hauteskundeak urrun daude, egoera berri batera iristeko denbora gehiago behar da. Alderdi bakoitzak berezko zailtasunak ditu –gu berriak gara, EH Bildu lau alderdik osatuta dago–. Koalizioa osatzen duten indarrek beren bidea egin behar dute. Oraindik, alderdi fronte bat da, hainbat erabaki hartu behar dute subiranotasunaren bidean. EH Bildu eta Ahal Dugu bidelagunak izan daitezke, baldin bakoitzak bestearen bidea errespetatzen badu. Guk behintzat haiena errespetatzen dugu. Hasteko, Euskal Herriaren independentziaren alde ari den alderdia izatea errespetatzen dugu, eta eurek errespetatu behar dute gu estatu osoan ari garen alderdia izatea, Espainiako Estatua plurinaziona-

la dela ulertuz eta onartuz. Beraz, elkar errespetatu behar dugu, baina ez derri-gorrez bi aukeren espazioak batzeko. Gu saiatzen ari gara transbertsalitate berriak sortzen. Horretan sartzen dituz Ezker Anitza, Equo, eta aldaketaren alde lan egite duten alderdi guztiak, bidea zabalduz eta alternatibak sortuz joan gaituzen EAJren hegemoniarekin bukatzeko. Helburu hori lortzeko hori da guk urratu nahi dugun bidea.

Kontziente zarete oso zaila dela gobernatzea? Ez duzue burokrazian erortzeko bertigorik?

Bertigoia beti daukazu, baina hori da hain justu gainditu behar dena, beldurra atzera utzi behar dugu. Bi urte egin dugu politikan eta orain boterea hartu nahi dugula esan behar dugu argi eta garbi. Oposizioan egotea eta kalean borrokatzea ondo dago, baina orain, adibidez, Euskadiko hauteskundeak irabaztea izan behar dugu helburu, bestela ezin da aldaketa lortu.

Horiek horrela, zer harreman edo sintonia duzue PP, PSE-EE eta EAJrekin?

Harreman formalak EH Bildurekin izan ditugu soilik, EAJrekin ere bai, baina ez asko. Nik Bilboko Ahal Dugu udal taldearen barruan lan egiten dut. Hiru alderdi horietako taldeekin hitz egin behar izaten dugu politika aurrerazaleago bat gauzatzeko. Lasaitasunez aritzen gara denekin, nahiz eta PPkoak oraindik ere oso burugorrrak diren. Adibiderako, hor dago Arantza Quirogaren kasua. PP euskal gizartea eskatzen ari denarekiko atzean geratu da, ez dute ausardiarik beren politika aldatzeko. Hala ere, egiari zor, denek bakoitza modu ezberdinean bada ere, EH Bildu barne, Euskadin oraindik ere

ez gaituzte aintzat hartzen, ez gaituzte hemen sortutako alderdi bezala hartzen, luzerako egongo den alderdi bat bezala. PP, PSOE eta EAJri bereziki molestatzen diegu. Andoni Ortuzarren hitzak entzunda, EAJk ez gaitu onartzen hemengo joko politikoan, ez guztiz behintzat.



“Emaitzek erakutsi dute tokian tokiko alderdiekin funtzionatzeko gure estrategiak balio duela”

“Estatu proiektu berri bat sortu daiteke, komuna edo ez, baina proiektuak herriek nahi duten bezalakoa izan behar du”

Estatuko Podemos hizpide orain: alderdia birfundatu beharko litzatekeela entzun diet zuen alderdiko batzuei. Besteak beste, hainbat kidek kargu politiko bikoiztua izango dutelako. Zer iritzi duzu kargu bikoitza izateari buruz?

Ez dut uste kargu bikoiztua izatea txarra denik, kide horiek alderdiko barne bizitzarekin harremanetan izatea ez dut gaizki ikusten eta, alderantziz, ona dela uste dut. Nik pertsona batzuk hobesten dituz alderdiko zereginean aritzeko eta bestetzuk egoki ikusten dituz instituzioetan. Aldi berean, kide batzuek bi kargu izateak alderdiko eta instituzioetako lana garatzen laguntzen du, alderdia eta instituzioen artean konexioa egon behar delako. Noski, ez nuke nahi bakar batek ere bi kargu baino gehiago izatea.

Eta Podemos birfundatzeaz zer diozue?

Orain arte osatu dugun alderdia hauteskundeetara joateko izan da, erabaki azkarrak hartzeko. Lerro politikoak azkar definitzeko hori oso eraginkorra izan dela konturatu gara. EAeko hauteskunde autonomikoak ditugu aurten eta horiek izan arte hoberena alderdia dagoen -dagoenean jarraitzea da. Hauteskunde ziklo hau amaitu ondoren, herrialdeka lan asko egin beharko dugu, herri mugimenduen forma izatetik alderdi forma gehiago izatera joan behar dugu. Horri birfundatzea deitzen al zaio? Ez dut uste. Guk lan egiteko modu bat dugu herri kontseiluetan eta herri zirkuluetan, horiek ondo landuz gero alderdia indartua atera daiteke. Egia da, hurrengo hauteskundeon ondoren inflexio unea izango da, harremanak sendotu beharko ditugu hainbat mugimendu, pertsona eta alderdiekin. Alderdia indartu behar dugu herri mugimendua atzean utzi gabe.

beira
margotu berria

SALSA MEHE EGINDAKO BERTSO MUSIKATUAK

DISKO BERRIA

kontratazioa 618 072 076 - 026

baga **biga**

MUSIKA IDEIAK

Tel: 618 072 076-26 / www.baga-biga.es / info@baga-biga.es
221 PK. 48100 Murguía (Bizkaia)

Espainiako Gobernuan edo oposizioan egotea nahiago duzu? Nola jokatu behar du Podemosek?

Aukeran, gobernuan egon nahi nuke. Eta posible balitz bakarrik. Ez dut uste gobernu koalizioak onak direnik. Une honetan ez dago gehiengo osorik duen alderdirik, hala ere, nahiz eta gobernuan gutxiengoan izan, Podemos saiatu behar da Gobernuan izaten. Noski, une honetan Podemosen zeregina ez da gobernu sortzea, PP eta PSOE gure aurretik daudenez, haiek saiatu behar dute lehenik. Katalunian gertatutakoak erraztu egiten du oraingo estatu eredu sinesten dutenek pixka bat hurbiltzea, horiek zenbait puntutan ados jartzea (PP, PSOE, Ciudadanos). Guk akordioa lortzeko ez ditugu haien nahi berberak, haienak ez dira gureak. Dena den, Kongresua oso zatituta dago eta hauteskundeak errepika litezke, errepikapenaren beldurra hor dago.

Horiek saihesteko PSOREkin osatuko zenuke Gobernu?

Hori ez dago nire esku. Nik ez nuke aukera hori egingo. Ez da unea.

Kataluniako Gobernu osatu da. Nola ikusten duzu prozesu independentista?

Prozesuaren bidea deskonexioa aurrera eramatekoa da, unilateralki, eta bide unilaterala ez da ona gizarte katalanarentzat, gure ustez. Ulertzen dugu Espainiako Gobernuak behin ere ez duela lagundu arazoa bideratzen eta konpontzen. Jarrera oso borrokatuak izan dira: alde baten eskaerari entzungor egin dio besteak, arazoa politiko denari eta orobat Katalunian gertatzen ari zenari bizkarra eman diote Madrilen. Hori ulertuta ere, ez dugu egoki ikus-

ten prozesuaren bultzatzaileak bestearen kontrako jokalekua bilatzea, hau da, unilateralki jokatzeko ez da modu ona deskonexio prozesua aurrera eramateko. Erreferenduma edota erabakitze eskubidea gauzatzeko alderdi nagusia CDC da, murrizketen eta ustelkeriaren alderdia. Estatu Katalana sortu nahi bada, gutxienez, murrizketa sozialak gutxitzeko izan dadila.

Podemos EAEn, Katalunian eta Galizian lehen indarra izan da. Zer balorazio egin duzue emaitza horiez?

Emaitzek erakutsi dute tokian tokiko alderdiekin funtzionatzeko gure estrategiak balio duela, eta ez bakarrik herrialde horietan, emaitzek ere erakutsi dute estatu plurinazionala osatzen dugula. Eta dugun estatua ez soilik zahartua dagoela, ez dela inoiz erreala izan baizik. Zoritzarrez, oraindik jarraitzen dute diskurtso horrekin. PSOE-ko Susana Diezi entzun diogunez "Lo primero es la unidad de España". Nola zabaldu daiteke tankerako mezu bat? Azken hauteskundeek erakutsi dute berriz ere zein den errealitatea. Gure ustez, estatu proiektu berri bat sortu daiteke, komuna edo ez, baina proiektuak herriek nahi duten bezalakoa izan behar du. Gure aldetik erabakitze eskubidea bermatzeko borondatea dago, estatua plurinazionala da eta hainbat puntu adostu daitezke. Ideia hori estatu osoan agertu da, Ahal Duguri bozka eman diotenen mezua ulertu dute. Duela bi urte inork ez zuen pentsatzen 5.000.000 herritarrek boza eman go ziotela Katalunian erreferenduma defendatzen duen Ahal Duguri. Orain berriz, jendetza bat dago horren alde. Hori klabeetako bat da.

Estatu periferiako Podemosen eta Espainiako Podemosen espainiartasuna berdin bizi edo defendatzen dute?

Bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Ziur aski, Katalunian batzuk espainiar sentitzen dira eta bestezuk katalanak. Espainian espainiar sentituko dira, normala den bezala, baina nazio artekotasan ez du oztopo izan behar estatua plurinazionala izan dadin. Kontua da bakoitza bere naziotasunarekin eroso sentitzea bai politikan bai bizitzan, beste nazionalitateak errespetatzea, lagun bezala ikustea eta unea iristen bada, bestearen proiektua errespetatzea. Alegia, espainiar sentitu edo ez, inork ez du katalanen bidea oztopatu behar, aitzitik, bakoitzak bere eskua luzatu behar du besteak bere bidea egin dezan.

Pablo Iglesias eta Iñigo Errejón erabakitze eskubidearen alde irmo ikusten dituzu?

Bai. Nik uste dut hori argi dagoela erakunde osoan.

Iglesias gabe, Podemosen proiektua gauzagarria al da egun? Ez al da arriskutsua liderraren figura indartsua?

Pablo Iglesiasen badu irudi indartsu bat, baina bere azpian badago erakunde handi eta sendo bat. Podemos jende anitzek eta ezberdinek osatuta dago, jende gazteak sortua da gehienbat. Nahiz eta hedabideetan lider indartsuaren irudia agertu, bozeramailea da, eta Pablo Iglesiasen bere rola dauka. Bere jokabidea komunikabideetan gure alderdiaren zeregina parte bat da. Baina, adibidez, Bilbon guk hartzen ditugu geure erabakiak, gu gara gure taldeen bozeramaileak. ■



AURKEZPENAK: URTARRILAREN 25ean Haur eta Lehen Hezkuntza

15:30etan euskaraz. 18:00etan gazteleraz

URTARRILAREN 28an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

16:00etan euskaraz. 18:00etan gazteleraz.

ATEAK ZABALIK. Egun horietan 17:00etan.

BERRITZAILEA. ELEANITZA. EUSKALDUNA ETA GERTU-GERTU

Urbialde 2. Beasain · ☎ 943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus

**EREITEN
DEN BIZIA**



Euskal gatazkaren konponbidea

EMAKUMEENTZAKO BAKEA NOIZKO?

90 lagun inguru Iruñeko Katakraken, Emagin elkarteak antolatutako *Hau ez da gure bakea* eskola feministan. Helburua: Euskal Herriko gatazka politiko-armatuaren irakurketa feminista egitea. Galderetako bat: Bake prozesua burura eramanda, emakumeok hilko, bortxatuko, mespretxatuko ote gaituzte oraindik ere, euskal gizarte normalizatuan?



Danele Sarriugarte Mochales
@daneleSM

Kezka iturri izan da gaia beti Euskal Herriko mugimendu feministaren puska handi batentzat, eta ezin uka, bolo-bolo dabil azkenaldian. Mugarriztat jo daiteke 2015ean UEUK antolatutako udako ikastaro bat. Oihana Etxebarrieta, Zuriñe Rodríguez eta Arantza Santesteban ikerlari feministek antolatu zuten, Euskal Herriko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministaren bidean izenburupean, Iruñean orduko hartan ere. Aurrez eta hainbat urtez, mugimendu feministak funtsezko lana egin du puntu honetara iristerako, eta orain, testuingurua ezin liteke aproposagoa. ETak su-etena iragarri zuenetik bost urte igaro direla, bake prozesua tirriki-tarraka bada ere, abian dela, hainbat kontu birpentsatzeko eta berreztabaidatzeko sasoi ezin hobea da.

Feminista askori burura datorkio zailantza: Zertaz ari gara bakeaz ari garenean? Eta biolentziatz ari garenean? Zer ekarriko du normalizazioak? Bestela esateko: Bake prozesua burura eramanda, emakumeok hilko, bortxatuko, mespretxatuko ote gaituzte oraindik ere, euskal gizarte normalizatuan?

Gobernatu ezean, bakerik ez

Jule Goikoetxea ikerlariaren arabera, patriarkalki pentsatu dira hala bakea nola biolentzia, baita ere gizarte nor-

malizatua zer den. Esparru publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa gakoa da ulerkeria horretan. Publikoan kokatzen dira berdinak, subjektuak, gizonak. Pribatuan, ordea, publikotik sistematikoki kanporatuta, kokatzen dira emakumeak, mendekoak, subjektuen zaintzaile (subjektuek jaten dutenaren sukaldari, janzen dituzten alkandoren garbitzaile). Esparru publikoa da politikaren espazioa, eta hortaz, bertan gertatzen direnak baino ez dira hartuko gatazka politikotzat, denon arduratzat.

Gogoan hartzeko moduko esaldi batean biltzeagatik: "Gure gizarte patriarkal normalizatuan gatazka dago baldin eta gizonek elkar akabatzen badute, eta bakea ezartzen da, aldiz, baldin eta gizonek akordioa sinatzen badute". Hau da, Euskal Herrian azken hamar urteotan hamaika emakume erail dituzte emakume izateagatik, baina euskal gatazka aipatzen denean, normalean, ez gara horretaz ari.

Eta orduan zer? Azpimarratzekoa da, berriz ere, sasoi giltzarria dela. Hala deritza Goikoetxeak. Aukera ikusten du bakearen kontzeptio patriarkalari aurka egin eta gatazka feminismotik ulertzen hasteko, gatazka baino gatazka daudela barneratzen hasteko.

Esparru pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketari helduta, funtsezkoa



iruditzen zaio emakumeek gobernu hartzea, orain arte ez bezala. Gobernatze hori oso modu deszentralizatuan da egitekoa. Azken batean, emakumeok ez gara gutxiengo bat, baizik eta jendearen erdia. Eta hainbat tokitan, hainbat alorretan, lanean ari gara. Bakoitza bere espaziotik eragiten hastea da gakoa, eta eragin hori maila makroan ulertzea.

Eusko gudariak gara...

Zuriñe Rodríguez ikerlariaren txanda, eta horrekin batera, zoom-a zorrotzu eta zehazki Euskal Herriko egoerari begiratzeakoa, Goikoetxearen analisi orokorragekoa tiraka.

Galderen bidez ekin zion hausnarke-tari Rodríguezek: Euskal gizartean biolentzia hegemonikoak eta subalternoak al daude (lehen eta bigarren mailakoak)? Zer iruditegi osatu dute? Euskal gatazka deitzen dugun horrek emakumeen rol tradizionalak indartu al ditu? Gatazka horrek, irauteko, gizarte-erregimen heterosexuala behar zuen? Nork zaindu du nor euskal gatazkan?



Esparru publiko eta pribatuaren arteko bereizketa nabarmenaren argitan irakur daiteke euskal gatazkako genero rolen gizarteratzea ere. Esparru publikoan, gizonak, gudariak lanaldi osoan. Horiek horrela aritu ahal izateko, emakumeak zaintzaile esparru pribatuan.

Hainbat dispositibo biolentoren bidez eutsi zaio oreka horri. Batetik, amatasunaren bidez, hori ulertuta baldintzarik gabeko zaintza gisa. Zaintza aitortu da, amaren rola goretsiz, baina ez da politikotzat jo, alegia, ez da militantziatzat hartu (amak ez dira izan esparru publikoko subjektu).

Emakume zaintzaile pribatuaren rola bete ez eta esparru publikoan jardun duten emakumeak ere egon dira. Horiek ere dispositibo biolentoak jasan dituzte, hala kanpotik nola barrutik. Kanpotik (espainiar komunikabideetatik, adibidez), emakume gudarien estereotipo negatiboak elikatu dira: zatarrak, frigiditateak eta lesbianak direla, CUPekoek berriki esan direnen ildotik.

Bestelakoak dira barrutik ezarritako kortseak. Emakume gudariak erotiza-

tu dira, ustez haien borroka laudatuz, baina ez zaie benetan heldu emakume gudarien arazoei, beren egoeraren gordinari. Zentzu horretan, Rodriguezek intuizioa du ez ote den hori bera gertatzen ari emakume kurduen irudiarekin.

Erotizazio biolento horren bidez adierazten da andre gudariak ezohikoak direla, gainerako andre arrunt eta zaintzaileak ez bezalakoak. Azken batean, dispositibo horien guztien bidez, mezu argia helarazten zaie emakumeei: esparru publikoan aritu nahi izatekotan, garesti ordainduko dute.

Tokian toki, matxinada feministak

Hitz-hartzei ez ezik, ariketa kolektiboak ere eskaini zitzaizkien tarterik Hau ez da gure bakea eskola feministan. Goizeko saioen ostean, taldetan banatu ziren parte-hartzaileak, gatazka politiko-armatua-rekin lotura izan duten eragileen jarduna xehe-xehe egiteko, eta betiere, bizipen eta sentimenduetatik abiatuta, aztertze-ko ea horiek zer hutsune izan dituzten, gatazka eta feminismoa uztartzerakoan.

» ZURIÑE RODRIGUEZ:

“Emakume gudariak erotizatu dira, ustez haien borroka laudatuz, baina ez zaie benetan heldu emakume gudarien arazoei”

» JULE GOIKOETXEA:

“Gure gizarte patriarkal normalizatuan gatazka dago baldin eta gizonak elkar akabatzen badute, eta bakea ezartzen da, aldiz, baldin eta gizonak akordioa sinatzen badute”

Esparru publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren argitan irakur daiteke euskal gatazkako genero rolen gizarteratzea ere. Esparru publikoan, gizonak, gudariak lanaldi osoan. Horiek horrela aritu ahal izateko, emakumeak zaintzaile esparru pribatuan. ADIBIDE KOMUNIKAZIOA

Mugimendu sozial eta politikoen ekarpenei erreparatu zieten talde gehienek, eta dudarik ez, lanketa handiena mugimendu feministak egin duela ondorioztatu zuten. Are gehiago, bertaratuen iritziz, beste esparruetan egin diren pausoak mugimendu feministaren presioaren ondorio izan dira.

Arratsaldeko saioan, iraganera barik etorkizunera begira jarri ziren ia ehun emakume feministak. Taula handi batean idatzi zituzten, batetik, aurrera begirako aukerak eta beharrak, eta bestetik, oztupoak. Baikor aritu ziren, Bilgune Feministak Twitter bidez jakinarazi bezala, aukera eta behar gehiago identifikatu baitzituzten, oztupoak baino.

Argi daukate: mugimendu feministak Euskal Herriko gatazka politiko-armatua birdefinitzeko urte luzez egin duen lanari tiraka eta azkenaldian sortutako korronteen abaroen, feminismoaren ekarpenak gatazkari buruzko narrazioan txertatzea dute erronka, errelatoan eta prozesu politikoan eragitea. Bidea: tokian toki, emakumeok daukagun boterea gauzatzea. ■

BETI EUSKARAZ EGINGO LIZUKEEN LANKIDEA EGUNERO ALBOAN BAZENU ZUK ZER EGINGO ZENUKE?

Fagor Arrasateko (Markina) eta JMako (Arrasate) langileei esan zieten ea euskararen erabilera areagotzeko Eusle metodoa probatu nahi zuten. Eusleak, beti euskaraz egingo zuten langileak izango ziren, gainerakoentzat ez zen derrigorra izango euskaraz aritzea. Bi hilabeteko esku-hartzeek emaitza onak izan dituzte.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Nicolas Unanue Bizkaiko Markinako Fagor Arrasate enpresan automatismo saileko langilea da eta eusle lanetarako aukeratu zuten. Bi hilabetez saileko gainerako langile guztiei euskaraz egitea zen bere lana. Pozik dago Eusle metodoan parte hartu izanagatik: “Sistema oso erraza da, ez dauka sofistiaziorik. Askotan hitz larregi egiten dugu eta egin ezer ere ez. Dinamika polita eta motza da. Pare bat hilabetetan aukera ematen dizu jakiteko nola zabilzan. Gure artean giro ona sortu zen, ‘kale egiten baduzu hamaiketako ekarri behar duzu’, horrelako tonuan ibili gara”. Dena ez da ordea erraz-erraza: “Hitz tekniko asko erabiltzen ditugu eta berbetan hasten zara eta ‘ostras! aldatzen ari gara’, eta berriro euskarara itzuli behar dugu. Zaila egiten da batzuetan, baina ohitu egin behar duzu, besterik gabe”. Automatismo saila, Eusle metodoan parte hartu izanaren aitazkian, bazkaria egitekotan da; gustuko esperientzia izan den seinale.

Josune Urbieta Emuneko aholkularia izan dute laguntzaile. Haren ustez, desiratzen zeuden horrelako esperientzia batean parte hartzeko. Enpresan euskarari dagozkion helburuak gainbegiratu eta erdaraz egiteko joera areagotzen zela konturatzen ziren, batez ere gai teknikoek ari zirenean. 15 langile dira automatismo sailean, denak dira euskaldunak, salbu eta hitz egin ez baina ondo ulertzen duen langilea. Lehenengo hilabetean hiru eusle izan zituzten eta

bigarren hilabetean beste hiru. Astero bi galdera egiten zizkieten parte hartu zuten langileei: Eusleak araua betetzen al du, alegia, beti euskaraz egiten al du? Eta jarraituko al dugu esperientziarekin? Langileen arteko euskararen erabileraren emaitzak ondokoak izan ziren: Eusle metodoan parte hartu aurretik erabilera %71,5ekoa zen. Bi hilabeteko esperientziaren ondoren %83ra igo zen eta hiru hilabeteko atsedena eta gero %80. 2014ko saioaren balorazio ona egin, eta 2015eko irailetik bigarren ekinaldian ari dira, oraingoan bost hilabeteko aldian. Aurki bukatuko dute beraz.

JMAn eszeptizismotik ilusiora

Oihana Garcia Elhuyarreko aholkularia izan zen laguntzaile JMA enpresan Arrasaten. Giltzak egiten ditu enpresak eta Garcia berak dio euskararen erabilera areagotzeko giltza bila zebiltzala. 15 urte euskara plana abiatu zutela. Langileen %10 euskaraz ez dakitenak, erabilera %40-45; euskaldunen artean %63. Eusle metodoa erabiltzeko aukerari baietz esan zioten, baina zalantza asko zituzten, beste hainbat ahalegin ere egin baitzuten eta emaitzak ez ziren beti nahi bestekoak. Bi hilabeteko saiakera egiten hasi eta, “emaitzak hasi ziren iristen, eta emaitzak iritsi ahala giroa berotzen hasi zen. Eszeptizismotik ilusiora pasa ginen”. Bi hilabetekoaren ordezkari hiru hilabetekoa egin zuten eta batek izan ezik beste guztiek txandaka

eusle funtzioa bete zuten. Erabileraren eboluzioa ondokoa da: 2013ko otsailan %74, maiatzean %85, uztailean %88, eta abenduan %87. Esku-hartzea bukatu eta gero, 2015eko azaroan euskararen erabilera %86koa zen.

Langileen artean bakarra izan da eusle lanak egin ez dituenak, ez zuen nahi izan bere ustez euskara maila apalegia duelako. Oihana Garciaeren ustez, ez zuen eusle lana hartu beregain, baina praktikan berak eutsi dio euskarari. Eusle metodoaren aurreko urteetan euskararako jauzia eman ez bazuen ere, oraingoan aldaketa eman du langile horrek. Bera Jesus Santa Cristina kalitate saileko zuzendaria da eta berari galdetu diogu Eusle esku-hartzeaz: “Pozik nago. Nire ama hizkuntza ez da euskara, ez dut hainbeste erabiltzen egunerokoan eta oso esperientzia positiboa izan da. Gero eta gehiago egiten da euskaraz kalitate sailean eta bulego teknikoan, eta proiektu hau bultzada izan da. Dena ez dut euskaraz egiten, niretzako zaila da, baina apurka-apurka banoa. Proiektua bukatu da eta euskaraz egiteko ohitura batzuk hartu ditugu”. Hiztegi teknikoak euskaraz erabiltzea zaila dela dio, baina ohiturak aldatzea zailagoa: “Lan kontuak direla-eta berotzen bazara, jentzia ateratzen zaizu, eta erdarara jotzen duzu, nik behintzat bai”. Euskaraz erraz moldatzen diren langileek berarekin nolako jarrera izan duten galdetu diogu, ea euskaraz egiten zioten: “Laguntza piloa



FAGOR ARRASATE



JMA

Goiko argazkian, Markinako Fagor Arrasaten Eusle ekimenean parte hartu duten langileak. Beheko ilaran ezkerretik lehena, Nicolas Unanue da, eusle lanak egin dituenetako bat. Beheko argazkian, proiektu berean parte hartu duten Arrasateko JMA enpresako langileak. Eskuinetik hasita zutik dagoen lehenengoa Jesus Santa Cristina da. Eusleri esker, langileekin euskaraz egitera animatu da.

izan dut, pazientzia izan dute, gauzak errepikatu dizkidate, hutsak zuzendu ere bai. Dena eskura jarri didate. Aukera handia izan da niretzat”.

Oihana Garcia aholkulariak, esku-hartzea bukatuta, langileek egindako balorazioetatik hainbat azpimarratu ditu. Langile batek zioen denekin euskaraz

egiten zuela uste zuela, eta konturatu zen ez zela hala. Txipa aldatu du eta gehiago ohartzen da noekin eta non euskaraz ala gaztelaniaz egiten duen. Eusle lanak egin zituen batek aipatu zuen laneko gauzez euskaraz hitz egitea zaila egiten zitzaioela, ikasketak gaztelaniaz eginda zituela eta lanean ere gaztelaniaz egin

zuelako ordura arte. Beste batek aldaketarik handiena lehen euskaraz aritzen ez zen jendearekin euskaraz egitea izan dela adierazi du. Garciaren iritziz, aldatetarik handiena euskara maila apalena zuen Jesus Santa Cristinarena izan zen, euskaraz ez hitz egitetik praktikan eusle lanak betetzera igaro zelako. ■

EUSLEAK, BETI EUSKARAZ EGINGO DUTEN LANKIDEAK

Aldahitz ikerketaren ataletako bat da Eusle metodologia. Ikerketaren zuzendaria Pello Jauregi (EHU) da eta koordinatzailea Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiola. Garapen taldean ondokoek hartu dute parte: Emun, Elhuyar, Ahize, Hernaniko Udala eta HPS. Babesleak: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zarauzko Udala.

Zazpi ikergune izan dira. Bost erakunde publiko: Tolosako Udala (bi sail), Eusko Jaurlaritzak (bi sail) eta Zarauzko Udala (sail bat). Bi industria enpresa: Fagor Arrasateren Markinako planta eta JMAREN Arrasateko planta.

Emaizta orokorrak: Esku-hartzea hasi aurreko erabilera, %59. Esku-hartzea bukatutakoan %77. Hiru hilabetezko geldialdia eta gero, %69,8.

Eusle metodoaren bidez lantokieta sail zehaztuz egin dira esku-hartzeak, eguneroko lan harremanetan. Bi baldintza eskatzen ditu. Batetik, borondatezkoa izan behar du, saileko langileek erabaki behar dute parte hartzea. Bestetik, taldeko kide guztiek euskara ulertu behar dute. Eusle izeneko figura dago. Gutxi gorabehera hamar langiletik bi eusleak dira, taldeak aukeratutakoak eta txandakatu egiten dira. Eusleek derrigorra dute beti euskaraz egitea.

BABESLEA: **HONDARRIBIKO UDALA**



Hondarribia
euskaraz bizi



Hondarribiko Udala



UDAL
EUSKARA ZERBITZUA
HONDARRIBIA

Mitokeriatan



Jakoba Errekondo

Arrasaten, Arrasate Pasealekuan plaza koxkor berri batean zuhaitz bat jarri nahi eta jendeari galdetu diote ea zer nahiago duten: haritz kanduduna (*Quercus robur*), pago gorria (*Fagus sylvatica* "Purpurea"), ezkia (*Tilia* sp.) edo astigar zuria (*Acer pseudoplatanus*). Pagoak bereganatu du parte hartu dutenen gogoia. Honez gero aldatuko zuten. Hautaketarako zuhaitz aukera prestatu zuenak jakingo du lau horiek proposatzearen zergatia. Zuhaitz horrek zer etorkizun izango duen jakinaren gainean egingo al zuten! Ez al dira hemendik urte gutxira handik eta hemendik moztu, mugarrotu edo inauten hasiko! Bertan lasai hazi eta bizitzeko modua izango ote du arrasatearren zuhaitzak.

Zuhaitzek elorrio dute, jeneralean, gure hiriguneetan. Beldurra diogu zuhaitzari; ezin dugu ikusi hazten, luzatzen eta zabaltzen. Gure txikitasuna agerian jartzen duelako, agian? Azpian hartu behar dugu, moztu, txikitu... Eta beldurtasunetik eraikitako mito ugari dugu. Mitokeriak hagintzen du gure zuhaitzak ikusteko eran. Mitoek garbi adierazten dute nolako tratatu zatarra eta gehienetan hiltzailea ematen diegun

gure zuhaitzei. Zuhaitz aldaketa sasoian gaudenez hona oinarritzko batzuk.

"Landarea sakon sartu behar da zuloan". Edozein landare aldatzen dugunean, lehen bizi zen maila berean jarri behar da. Lepoan ederki igarriko zaio lurraren arrastoa. Maila berean sartuta aldatu.

"Zuhaitza estu lotu behar zaio hesolari". Aldatu berria den zuhaitza ondo itsastea da garrantzitsua. Horretarako mugimendua ez da txarra. Estuegi lotutako zuhaitza sekula ez da bizimodu naturalera jarriko. Beti helduleku horrekin bizitzera jarriko da. Hobe da hesolari lotu, baina lasai, haizea sentitu eta balantzara ohitu dadila. Errazago itsatsi eta etorriko da.

"Aldatu aurretik adar batzuk inausi behar dira". Tokiz aldatzean sustrai batzuk galduko dituelakoan, antzeko proportzioan adar batzuk kentzea ere egokia zela uste izan da. Adarrek, ordea, erreserbak dituzte eta hobe da landarea bere horretan aldatzea. Adarren bat ihartzeko bada haren erreserbak mugitu eta gero ihartuko da. Orduan moztu. Aurrez moztuz gero landareak jakiak galduko ditu. ■



"Landarea sakon sartu behar da zuloan", zuhaitzei buruz eraiki ditugun mitoetako bat.

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Zein litzateke garairik onena haritz gazte bat eta pago gazte bat transplantatzeko? Biak bost bat urtekoak dira. Bestalde, bi urte inguruko urki bat daukagu balioan, eta mendian dugun sail batera eraman nahi dugu, noiz komeni da egitea? Eskerrrik asko!

Ekaitz Martinez (Ordizia)

Kaixo Ekaitz. Hiru zuhaitzak neguan soilten dira, hostajea galdu egiten dute. Nahiz haritza (*Quercus robur*), nahiz pagoa (*Fagus sylvatica*), nahiz urkia (*Betula pubescens*) aldatzeko sasoia bera da: negu-neguko ilbehera, aurten urtarrilaren 24tik otsailaren 4ra bitartean. Neguko geldialdia baliatzen da landaketa lanak egiteko. Ahal duzun azkarren egin, beti ere izotza izateko beldurrik ez den egunetan. Hotz handia bada, landaketa egindakoan sustraien gaineko lurra ondo zanpatu eta simaur berri mordoxka bat jarri gainean, lurreko zirrikietatik hotza sar ez dadin. Ahaztu gabe: landatutakoan zuhaitzaren lepoan lehen zuen maila berean jarri lurra.

Zuhaitzentzat betiko bizitokia aukeratzeko kontuan izan: ur gehiena urkiak behar du, pagoak ere ura eskertuko du; haritza, aldiz, lur lehorxeagoan ere moldatuko da.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea • [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



IRAKURLEAK LIBURUAZ MINTZO

Iñaki Azkune:

“Guretzat oso baliagarria zen ‘horzbikoa’”

Bizi Baratzea liburua irakurtzean, gaztaro oroitzen berehala etorri zaizkit, orduan etxeko baratzea lantzen jarduten genuelako. Larre motzean hazten ari ginen gehienok, eta baratzeke emaitza funtsezkoa zen elikatzeke, nahiz eta barazkiek baino indartsuagozat beste janari batzuk jo, okela, adibidez.

Begira, bestela, zer dioen garai hartan erromeriatan kantatu ohi genuen trikiti-kopla honek:

*Goizean porru-salda,
eguerdian azak,
ondo sartuko zaizkik
ipurdian galtzak.*

Liburuan argi eta garbi zehazten da urtaroen eta ilargiaren konpasean landare-mota bakoitzarentzat lurra nola landu, nola ureztatu, nola ongarritu, hazia noiz eta nola erein, gaitzei aurre nola egin, etab.

Oso bitxia eta interesgarria iruditu zait 12. orrialdean liburuan baratzean erabiltzen diren esku-erreminta mota bakoitzarekin (aitzurrarekin lan eginez, adibidez) gorputzeko zein gihar lantzen diren jakitea. Hor aipatzen diren erremintez gain, guretzat oso baliagarria zen “bihortza” izeneko aitzurra

(patata ateratzeko, adibidez). Guk beti, nahiz eta Gipuzkoako bihotzkeak izan, “horzbikoa” esaten diogu, bizkaieraren joskerari jarraituz, pezeta indarrean zegoenean 50 zentimoko txanponari “errealbikoa” esaten genion bezalaxe. (Getarian, adibidez, txalupan “arraubian” ibili ere esaten dute).

Dena dela, oso garrantzitsuak dira, besteak beste, Amerika edo Indiako indigenen Patxamamak (edo gure Amalurrek) sortu eta gure lurretara XV. mendean amaieraz gero iritsi diren landareak. Zehatz-mehatz ematen da liburuan horien berri. Ikus bestela barazki hauen fitxak: artoa, babarruna, piperra, tomatea, patata, kuia ...

Baratzea lantzean pertsonaren eta luraren arteko harremana gozamina izaten da maiz. Hasieran bere nekea badu ere, geroko emaitza, uzta biltzea eta ondo prestaturik barazkiak jatea oso atsegina izaten da. Gure Lizardi olerkari handiak barru-barruan nabaritu zuen hori:

*Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz asean ...*

Zorionak, Jakoba.

AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauk dira ondorengo hitzorduak:

Urtarrilak 27

Atxondo

Esolan, 18:00etan. Guraso elkartearen eta ikasleen eskutik.

Otsailak 9

Eibar

Eta Kitto! Euskara elkartearen egoitzan, 19:00etan.

Otsailak 10

Bilbo

Ekoetxean (Pilota kalea, 5), 19:00etan.

Otsailak 16

Goiatz

Dendale ostatuan, 18:30ean.

Otsailak 18

Iruñea

Civiox Condestable jauregian, ordua zehazteke. Nafar ateneoak eta Iruñeko udalak antolatuta.

Otsailak 27

Erratzu

Etxelebertzeko Txokoan, 11:00etan. Hazien Egunaren barruan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitetz gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

Eskaerak: 943 371 545 • www.argia.eus/denda • denda@argia.eus **Zure saltokian salgai jartzeko, jarri harremanetan gurekin.**

Salneurria: 23 € • Harpideentzat: 19,50 €

EUSKAL KORTSARIOEN UHARTEA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Pilier uhartea (Frantzia), 1172. Buzayko abadiako monjeek beste abadia bat eraikitzea erabaki zuten Loira ibaiaren estuarioko lau hektareako lur zatitxoan. Irla txiki eta bakartuak zistertarrek bilatzen zituzten soiltasuna eta austeritatea eskaintzen zituen. Baina nonbait, Pilierrek zorrotzegi betetzen zituen printzipio horiek, baita zistertarrentzat ere, eta 33 urte geroago Nourmoutier izeneko beste uharte batera aldatzea erabaki zuten, handiagoa eta abegitsuagoa baitzen hura. Horrenbestez irla hutsik geratu zen, hainbat mende geroago euskal kortsarioak iritsi ziren arte.

Pilier uharteko kortsarioen berri zaharrenek 1545eko data dute, eta 1693. urtean egotzi zituzten betiko. Beraz, hainbat kortsario belaunaldik hartu zuen babesa bertan, eta gehienak gipuzkoarrak ziren. Gotorlekua eta talaia eraiki zituzten eta, handik, Loira ibaitik itsaso zabalera irten nahi zuten ontziak behatzen zituzten. Frantziako koroak hainbat espedizio bidali zituen uhartea garbitzeko asmoz, baina kortsarioen gotorlekua menderaezina izan zen mende eta erdian.

Zingo edo kalatu txikiko ontziak nahiago zituzten, hondarpez jositako Frantziako kostalde atlantikoan erabilgarriagoak zirelako. Gehienez ere 80-



SURVOL DE FRANCE

Pilier uhartearen airetik argazkia. Lur zati txikiak biztanle gutxi izan du historian zehar: monje zistertarrak bizi izan ziren laburki XII. mendean; 1996an itsasargia erabat automatizatu baino lehen, farozainen bizileku izan zen; eta tartean, euskal kortsarioek erabili zuten kokagune estrategiko gisa.

100 bat kidek osatzen zuten eskifaia eta 8-10 kanoi izaten zituzten. Maiz arrau-nontziak erabiltzen zituzten, hondartzetan lehorreratzeko eta ibaietan gora joateko aukera ematen zielako. Gainera, ontzi txikiagoak merkeagoak ziren.

Ez zuten uretan denbora asko igarotzen, janaria, bolbora eta gainerako horniduretan aurrezteko. Eta normalean bakarka nabigatzen zuten, edo gehienez ere binaka. Horrela, harrapakina lortuz gero, inbertsioa azkarrago berreskuratzen zuten eta gutxiagoren artean banatu behar zuten.

Émile Gabori (1872-1954) historialari frantziarrak honela deskribatu zuen Pilierko euskal kortsarioen jardueraremu: "Bretainiako kostaldean, Poitou jardun ohi zuten. Loiran gora askotan joan ziren, eta bidean aurkitzen zuten orori erasotzen zitoten. Egunero lortzen zuten harrapakinen bat. Morhibaneko sarrerari eta Brestekoari erasotzen zitelen, eta Noirmoutier suntsitu zuten. Pilierren ezkututzen ziren, Nourmoutierretik gertu, eta behatokia eraiki zuten bertan. (...) XVII. mendearen amaiera arte ez zen lortu haiek egoztea". ■




Komikiaren pasarte honetan, pertsonaiak Bechdel testaren baldintzak azaltzen ditu.

Bechdel testa: benaz hartu beharreko txistea

Alison Bechdel komikigile estatubatuarrek 1985ean argitaratu zituen bere izena daraman testaren arauak, *Dykes to Watch Out* komiki-tiran. Pertsonaietako batek besteari esaten dio film bat ikusteko hiru baldintza bete behar dituela: gutxienez bi emakumek agertu behar dute; biek elkarrekin hitz egin behar dute; eta gizonak ez beste edozein gaiz hitz egin behar dute. Eskakizunak bete zituen azken filma *Alien* (1979) dela gaineratzen du. Egileak dio

egokiagoa dela testari Bechdel-Wallace esatea, ideia Liz Wallace lagunak eman ziolako, eta hari Virginia Woolfen *A room of one's own* irakurritako bururatu zitzaizola.

"Berripaper feminista alternatibo batean argitaratutako lesbianen txiste bat besterik ez zen", Bechdelen hitzetan. Azken urteetan, besteak beste, Suediako Film Institutua eta Eurimages funtsa testa irizpidetzat erabiltzen hasi dira proiektuak balioesteko. ■



EUSKAL HERRIKO SAGARDO GARAIAREN MAPA

Txotxetik haragoko mundua



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Onartu ezazu, irakurle, zuk ere dagoeneko hitz eginda izango duzu lagunen batekin sagardotegiko plana antolatzearena. Ezagutzen dugu elkar pixka bat dagoeneko... Eta urteroko galdera da, zein sagardotegitara joango gara? Noski, zalantzarik gabe "sagardoaren lurraldeira", Hernani-Astigarraga aldera egingo duzue bisita. Orain bi aste jasoko zenuen ARGIAk argitaratutako 2016ko sagardoaren gida, eta topatuko duzu Euskal Herriko sagardotegiaren informazioa.

Hernaniar bati hau esatea kostatu egiten bazaio ere, ez gara sagardotegiak dauzkagun bakarrak. Daitort. Eta ARGIAk 1994tik urtero kaleratzen duen posterrarekin hori ere erakutsi nahi du. *2016ko sagardo garaia. Euskal Herriaren barrena* izena du zazpi lurraldeak kontuan hartuta osatutako aurtengo gidak. Sagardoari lotutako elementu guztiak bildu nahi izan dira mapan. Sagardotegiek hartzen dute protagonismoa, jakina; baina zuku honekin harremana duten beste zenbait elkarte edo museo ere ikusarazi nahi izan dira. Hor dauke Zerain Dezagun Fundazioa (Zerain), Sagasti esperimentalak (Urkiola eta Vi-

llabona), Iturraran Parketxea (Aia) edo Albaola Itsas Kultur Faktoria (Pasaia San Pedro).

Sagardo-agenda

Urte osoan zehar Euskal Herrian antolatzen diren sagardoaren inguruko hainbat eta hainbat ekintza bildu dira sagardo-agendan. Txotx denboraldiaren irekiera egunez gain, sagardo egunak, azokak, lehiaketak, bertso bazkari/afariak eta askoz gehiago sailkatu dira hilabetea eta lekua zehaztuz. Gipuzkoako Sagardogile Elkartearekin elkarlanean egin da atal hau, eta informazio gehiago sagardotegiak.com webgunean topatu dezakezu. Sagardotegiak daukan eskaintza azpimarratu da: botilako edo txotxeko sagardoa, Labela, ekologikoa, bisita gidatuak, lotarako lekua... Informazio hau guztia eta Euskal Herri luze-zabala biltzen duen euskarri bakarra da, baina lehena izanik, posible da zenbait elementu ahaztu izana.

Horren sagardoazale zaren irakurle jakintsu hori, seguru dagoeneko bota duzula faltan zerbait; idatzi sustapena@argia.eus helbidera eta eman horren berri! ■



“ARGIAk euskara munduan ematen duen argia ezinbestekoa da. Balioen arabera gaien artean egiten duen lotura ere bai”

Paul Bilbao,
Euskararen Kontseiluko idazkari nagusia eta ARGIAkoa

ARGIA SARIAK OSTIRALEAN

Jarraitu dezakezu zuzenean eta irabazi porra!

Mila esker zuen hautagaiak proposatu dituzuen harpidedunei! Horiek ere kontuan hartuta, ARGIAko langile taldeak prest ditu 2015ean komunikazio esparruan nabarmendu dituen lanen izenak. Urtarrilaren 29an egingo dira publiko, Usurbilgo Atxega Jauregian.



Urtarrilaren 26tik aurrera nork bere pronostikoak bota ahalko ditu sare sozialean, #ArgiaSarienPorra traola erabilita (informazio gehiago www.argia.eus-eko ARGIAren Barrenak blogean).

29an, ostiralarekin, sari banaketa zuzenean jarraitzeko aukera dugu: argia.eus webgunean bidez ikusi ahal izango dugu ekitaldi osoa (16:00ak aldera hasita). Eta sare sozialetan #ArgiaSariak traolarekin egingo diogu jarraipena. Sarituei buruzko norberaren iruzkinak oso ongi etorriak izango dira!



Baionako Barraraino

Kanta hau bihikatu zaigu frankotan ahotsean behera, haurrak loak hartzeko orduan adibidez, edo, Baionako Barrara abiatzean, Bizkaiko Golkoaren altzo emankorrean begia pausatuz, saihetsean genituenak sosegatzeko. Abesbatza eta artista askok grabatu zuten, hala nola Amaia Zubiriak, Elaudi taldeak, Urkok, Elefteria Arvanitarekin Kepa Junkerak eta Joseba Irazokik, rock bertsio harrigarri batean...



Itxaro Borda

IRUDIAK: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Ohikoan euskal lo-kanta ederrenen zerrendan aurkitzen dugu kopla sorta zohar eta labur hau. Perla preziosoaren antzera distiratsen du gure kulturaren ortzi sakonean. Edonork kanta dezake berea bailitzan, Baionan bezala Elorrion ere. Maitasunak ala bakartasunak larrutu lagunaren betazalak hezeten dira abestia aitzina doala bukaerako bertsoaren harkaitzean lehertzeraino.

Lo-kantak, umeak atsedenenaren zurrunbilora gidatzeko obratxoak, munduko jendarte guztietan aurkitzen dira, lekuak, hizkuntzak eta jaidura nahastuz, ahoskatzen, xuxurlatzen edo ezpainak mugitu gabe aireratzen direla. Ama -dagoeneko aita halaber- eta umea dira hemen pertsonaia nagusiak: ukimena eta soa bezain garrantzitsua den boza da, bien arteko komunikatzeko baliabidea. Haurren hizkerara hurbiltzearen, onomatopeiak, zintzur-soka jokoak, hiztegi bereziak erabiltzen dira eztitasunez hanturiko lotura horren gauzatzeko:

*Buba buba ñiñaño
Haurra duxu mimiño...*

Sehaska-kantek ahozko tradizioaren atal ikusgarria osatzen dute. Hitzak eta soinua uztartzen dituen ekintza poetiko horretan bien arteko harmonia bat sortzen da, ama eta haurra, biak aldi berean sozializatzen saiatuz. Irakats tresnak ere badira alabaina. *Itsasoa Laino Dago* honetan amak haurrari erakusten dio naturako elementu ezberdinak aipatuz zenbat maite duen. Beste batzuetan umeak lo egiten ez baldin badu zer gertatuko zaion jakin arazten dio:

*Ez baduxu egiten lo
Jinen da xakur handiño...*

Melodia, halatan errepikakorra da, marmara bat, sehaskaren kulunka neur-tuz harilkatzen dena, hizkuntza musika bihurtzen dela, gurasoak haurrekin,

uterotik atera bezain laster, soka ikusiezinez lotzen dituela. Herrialde batzuetan, amen ordeztu, gizonezkoek dituzte lo-kantak salmokatzen, demagun Afrika erditsuko pigmearren herrietan, europar eredia ez dela bakarrik azpimarratzeko.

Lehen koplak, geografikoki kokatzen du eresia. Kanta zaharren egiteko moldea da -Lakarri, Lastur, Urtsua...- eta oraindik erabiltzen da gertakariak nehorik ahortzi ez dituen leku propioetan txertatzeko, Gaztelugatxe, Deustuko Zubia, Nebraska ala Desolation Row izan. Ziur gaude, Landatarrek beraien Euskaldun auzoei leporatzen zieten 1578ko Aturriren bahiketa finkatuko zuen Baionako Barraren eraikuntzaren ondotik sortu zela.

*Itsasoa laino dago
Baionako Barraraino:
Nik zu zaitut maiteago
Txoriak bere umeak baino!*

Itsasoa laño dago, bare alegia aroa agudo aldatzen den arren, orduko erabakitzaileen nahikundez moldaturiko ingurune maritimo horretan. Erromatarren denboretan Capbretonen eta Erdi-Aro garaitik hara Port d'Albreteko portuan itsasoratzen zen Aturri, joan etorrian, delta heze eta bihurri nagituz. Noizbehinka, Baionatik edo Angelutik zulatzen zuen itsasora, hala nola 1164an.

Baina ez zuen irauten eta Baiona pobretzen zihoan. Frantziako Charles IX erregearen zaleak ziren Lapurdiko jauntxoek behin-behineko erabakia hartu zuten. 1578tik aitzina, ondorioz, Escoriala marraztu zuen Louis de Foix arkitektoaren zuzendaritzapean ibaia desbideratu zuten, aho berria gaurko Bokalen irekiz. Baionako Barra orduan luzatu zen, hasierako egurrezko egitura

XIX. mendean harri gotorrez indartuz. Duela hiru urteko galernek barra mugiarazi zuten eta blokeak ekarri zituzten oinarriak finkatzeko.

Sehaska kanta hau irakurtzean, kantatzean, gauza batez ohartzen gara: orokorrean sinesten dena gezurtatuz, euskaldunak betidanik izan dira berritasunak ohoratzeko eta integratzeko prest, musikak, dantzak, hitzak, teknikak –trena, autoa, traktoreak– edo eraikuntza ikusgarriak. Baliteke halaber Aturri Baionaren esku uzteko lanak hain harrigarriak izatea non hauek edonon, edonola, aipatzea ezinbestekoa zirudien garaikideei.

Poeta ezezagunak zizelkatu elegia saila itsas giro beratz batean troxatua datorrigu. Argi dago uraren funtzioetatik bat amodioa sinbolizatzea dela, naturaren oparotasuna, ama-ontziaren gozotasuna eta harreman amakoia. Urak

» Irakats tresnak ere badira lo-kantak. Honetan amak haurrari erakusten dio naturako elementu ezberdinak aipatuz zenbat maite duen



garbitzen gaitu, urak biltzen gaitu, gure herria itsasoak azpiltzen du, ibaiak eta iturriak anitz dira Euskal Herriko lurretan. Baionatik Angelurako edo Bokalerako behialako larre gazietan haizeek bulkatu etxe bakartia irudika dezakegu, supazter zokoan sua, kanpoan gau zohardia eta barnean ama-haurrak lo ezin, aita eta gizona urrun dutelako, arrantzara, lanera edo gerrara joana:

*Aita gutaz oroit dago
Lainopean gaueraino!
Nik zu zaitut maiteago
Arraintxoek ura baino!*

Amak, loaren zurrumbilora eraman nahi duen umea, mutila ala neska den ez dakigu. Haur bat da, soilik, azalpen gehiagorik gabe. Azken aurreko koplan aipatzen den aingeruño kuttunak ere ez du haurren generoa zehazten. Gauak eta itsasoaren hurbiltasunaren sentsazioak ezaugarriak ezabatzen bulkatzen du bertolaria. Poesia, laino giro laño horretan erraldoi altxatzen da.

Kantaren sortzaileak konparaketak baliatzen ditu bere diskurtsoaren zurkaizteko. Ama horrek bere haurra, txoriak bere umeak baino maiteago duela aldarrikatzen da hemen: erkaketaz gain, superlatiboa ondorioztatzen da kopla bakoitzaren hondar bi lerroetan. Halaz, olerkiko maitasunaren absolutua seinatzen dabil egilea, etengabe.

Metaforak bi alorretan garatzen dira, batetik familiare domestikoan eta bestetik kosmosaren espazio mineralean, txikitasunetik handitasunerako norabidean. Aitaren aiduru daude, afaria sutan dago, gauaren amultsuan:

*Afaria sutan dago
Bero-bero sarridiño:
Nik zu zaitut maiteago
Egur onak sua baino.*

Abere urriak izendatzen dira: txoriak eta arraintxoak. Airea hegaztientzat eta ura arraintentzat hil ala biziko elementuak direla argi uzten du testuak. Supazterrean erretzen dabilta suaren kalipua biderkatzen duten egur onak. Janariaren eta egoitzaren berotasuna ziurtatzen dute, guraso bakarreko familia horren zortea gerizatuz.

Intimitatetik kosmologiaren mailara igarotzen da poeta izarrak, ilargia eta iparretik hegora hedatu ortziaren boro-



» 1578tik aitzina, Escuriala marraztu zuen Louis de Foix arkitektoaren zuzendaritzapean ibaia desbideratu zuten, aho berria gaurko Bokalen irekiz. Baionako Barra orduan luzatu zen, hasierako egurrezko egitura XIX. mendean harri gotorrez indartuz

» Orokorrean sinesten dena gezurtatuz, euskaldunak betidanik izan dira berritasunak ohoratzeko eta integratzeko prest

» Umea lotan dela emakumeari egia-
aitortzeko ordua datorkio. Sehaska balantzatzan duen neurrian bizitzaren oinarritzko ezaugarriak irakasten dizkio: abandonua, bakartasuna, maitasunaren iraupena ororen gainera ororen gainera

bila aipatzen dituenean. Iparrak hegoren premia du izateko, berdin ilargiak gauarena, distiratzeko.

*Izar xuriz mila dago
Iparretik hegoraino:
Nik zu zaitut maiteago
Ilargiak gaua baino.*

Baionako Barrara doanak ardura, itsaso lasai eta nagi ikusteko aukera dauka, Bokaleko zein Angeluko ezpondatik. Larrazkeneko uhin basatiak harrotzen direnean aldiz, Aturri hegiak eta itsas ahoko eremuak nahas dabilta, lanjeros, beldurgarri, bitza ttantta gaziak denetan barreiatzen direla haizearen eraginez.

Ama bakartiak supazter izkinan haurrari xuxurlatzen dion lo-ahaidean ere, bukaeran agertzen da galerna, egoeraren funtsaren harkaitza:

*Orai haurra hor lo dago:
Lo egizu, aingeruño
Nik zu zaitut maiteago
Zure aitak nihaur baino.*

Umea lotan dela emakumeari egia-
aitortzeko ordua datorkio. Kantaren tristura nabaritzen da, malenkonia, nostalgia, hasierako laino trinkoaren moduan, guztia setiatzen duela. Haurrari sinetsi arazi zion aita hark beraietaz oroitzen jarraitzen zuela, errealitatea arras bestelakoa izanagatik: aita joana da, ama hura ez du maite. Sehaska balantzatzan duen neurrian bizitzaren oinarritzko ezaugarriak irakasten dizkio: abandonua, bakartasuna, maitasunaren iraupena ororen gainera.

Itsaso ertzean harilkatu kanta haue-
tan ama-haurraren arteko amodioaren samurtasunak utzikeriaren minak ez-
titzen ditu, egunerokotasunaren isuria baimenduz:

Nik zu zaitut maiteago... ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84.1 x 59.4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.



Egin ezazu eskaera: ☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus

TELESAIL ZAHARRAK BERPIZTEN; ZERGATIK?

Azken urteetan hainbestetan entzun dugun “gaur egungo zinema onena, telebistatik dator” esaldia egia bada, zergatik berpiztu orduan *Twin Peaks*, *Roots*, *Star Trek* edo *V* bezalako telesailak? Originaltasun falta larriagatik-edo, film-industriak urteak daramatza ditzosozko *remake* famatuekin gora eta behera. Baina orain arte behintzat, pantaila txikiaren barruan panorama oso desberdina izan da. Zer ari da gertatzen? Zergatik eta zertarako berpiztu orain telesail horiek?



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Internet bidezko ikus-entzunezkoen zabalkundearekin (Netflix da adibide nabarmenena), lehia eta konpetentzia askoz handiagoa da eta ondorioz, gakoetako bat edukien artean bilatzen hasi dira, gidoi eta istorioen lanketetan alegia. Gaur egun nahiko erraza da diru gutxiarekin ekoizpen ikusgarria egitea –neurri batean, jakina–, doako aplikazio ikusgarriak daudelako eta merkatuan kamera nahiko merkeak aurki daitezkeelako kalitate zoragarrian grabatzeko. Konpetentzia bortitz horrek nabarmentzeko beharra sortu du eta horri esker, edukari askoz ere arreta handiagoa eskaintzen hasi zaio. Gidoiak askoz lan-duagoak daude eta konturatzen hasiak dira gakoetako bat hor egon litekeela, istorioetan. Hauxe da nire ustez pantaila txikiaren mundua tinko eta sendo mantentzeko dezakeena. Zorionez, prozesu hori ezinbestekotzat duten sortzaile ugari dago eta horri esker, azken urteetan mundu osoan harribitxi ugari ikusteko aukera izan dugu, Britainia Handitik edo herrialde nordikoetatik datozkigun telesail biribilak esaterako.

Nostalgia efektua?

Baina hasieran aipaturiko telesailen itzuleran ez dut uste sormen-arrazoirik dagoenik. Modu batean edo bestean, trama horiek itxi egin zituzten. Kontuan izanik eduki aldetik ez direla “produktu berriak”, azken urteetan loratzen ari den efektu bitxi bat aprobetxatu nahian ari direla uste dut: nostalgia. Bai, azken urteetan nostalgia modan dagoela nabarmena da. 1980ko hamarkadan jaio eta hazi ginenok batez ere ohartuko gara hamarkada horretako zenbat film eta telesail bihurtu diren kultuzkoak. Ikaragarritzko lotura eta konexioa sortzen da txikitan bizi izan genituen istorioekin. Sekulako pasioa sentitzen dugu garai hartako film, musika edo jostailuak burura datozkigun bakoitzean.

Telebista kateetako arduradun eta ekoizle asko zirrara hori guztia aprobetxatu nahian ari dira. Telesail konkretu horrek atzean sortzen dituen zeharkako diru etekinak gako bihurtu daitezkeelako. X filesen itzulera iragarri zutenean, adibidez, asko aurreko

denboraldien DVD bilduma erostera joan ziren, estreinatzen duten egunean fresko izateko. Malenkonia kontrolaezinezaren menpe daudenak *Star Trek* kamisetak erosten hasi ziren. Ekoizpen hauen atzean sortzen den *merchandising* guztiak diru kantitate harrigarria mugitzen du. Argi dago gainera 80 eta 90eko hamarkadetan, telesail horien zale izan ginenok estreinaldi berriak gertutik jarraituko ditugula, hori bai, *gillotina* esku artean dugula eta gure eskaera maila oso altua izango dela kontuan izanik.

Gizarte gaiak eta modak?

Beste bi faktore garrantzitsu ere aipatu nahi nituzke: alde batetik, urte jakin horretan munduan gertatzen ari dena. Hau da, gizartean pil-pilean dauden gaiak aprobetxatuz, konexioa duten istorioak berpiztea, modu horretan ia doako marketin kanpainak lortuz. Politikarekin erlazioaturiko gai bat izan liteke, gatazka konkretu batekin edo dena dela-koarekin. Estreinatzen urtean modan ez zegoen gai batek gaur egun agian in-



formatiboa irekitzen du. Eta batzuetan gaurkotasunarekin oso pegatuta dantzatu nahi izateak errealitatearekin gurutzatzea ekar lezake. Virginiako tiroketaren ondorioz *Mr. Robot* telesailaren denboraldiko azken kapitulua atzeratu zutenean adibidez, antzeko "eszena grafiko" zela-eta.

Eta bestetik aktore, zuzendari edo sortzaile bat modan dagoela aprobeztatzea. Hau da, antzinako istorioaren *remake* bat egin, baina garai hartako protagonista erabili beharrean gaur egun oso ezaguna den aktore bat hartuz. Horrela, izen horren atzetik dabilen zale mordoa irabaz dezakezu, audientzia datuak puztuz. Baita istorioaren kokalekua erabat aldatu ere, herrialde jakin horren testuinguruan hobeto funtziona dezan; *Forbrydelsen* (Danimarka) telesailetik, *The Killing* (AEB) sortu zuten adibidez. *Bron/broen* (Suedia/Danimarka) hartuz, *The Bridge* (AEB/Mexiko) eta *The Tunnel* (Frantzia/Ingalaterra). Berdin *Hatufim* (Israel) ekoizpena moldatuz *Homeland* (AEB) egin zutenean ere.

Formula honekin, etorkizunik ez

Ikaragarri gustatuko litzaiguke telesail baten biziraupena ziurtatuko lukeen faktorea sentimentalitatea izatea, edo behintzat artistikoa. Baina logikak dio, kontu komertziala besterik ez dela. *The Simpsons*, *The Big Bang theory* edo *Modern Family* telesailen iraupen luzea kalitate kontu batengatik dela uste duena oker dabil. Errentagarriak diren bitartean, hortxe jarraituko dute, bestela kanpora. Formula honekin jarraituz gero, telebistaren hirugarren urrezko aroa delakoa ez da existitu ere egingo, horren ordez, telebistaren lehen izotzezko aroa iritsiko da. Kanpoan, hotz handia egiten duela dakitenek soilik biziraungo dute. Oihanaren legea ezarriz, diru gosez hiltzear dauden lehoiak azalduko dira.

Ezabaezina ziruditen *The Sopranos*, *The Wire*, *Lost* eta *Breaking bad* bezalako telesailak utzitako arrastoa pixkanaka ezabatzen joango da. Horiei esker fikzio mota honekin zeuden aurreiritzi negatibo guztiak hankaz gora joan ziren eta telesailak beste modu batean ikusten hasi zen publiko espezializatua ere.

Twin Peaks bezalako telesailak pantaila txikira itzularazteak helburu ekonomiko argiak ditu: nostalgiaren merkatutik etor daitezkeen irabaziak zukutzea.

» Gustatuko litzaiguke telesail baten biziraupenaren kausa artistikoa izatea, baina logikak dio, kontu komertziala besterik ez dela

Baina argudio artistikorik gabe, *reboot*, *remake* eta *berpizketa* hauen guztien atzean dagoen arrazoi bakarra nostalgiaren kontura aberastea bada, oso gaizki goaz. Ekoizpen horiek denek lortutakoa ezerezean geratu daiteke eta orain urte batzuk bezala, kalitate eskaseko eta exigentzia murrizteko produktu eta saioekin lotuko dugu berriro pantaila txikia. "*Winter is coming*". Erne. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Arbola maitea



Xabier Etxaniz Erle



Arbola eskuzabala

SHEL SILVERSTEIN

Ilustrazioak: Shel Silverstein
Itzultzailea: Manu López Gaseni
Pamiela, 2015
60 orrialde

1964an argitaratu zen lehen aldiz liburu hau; eta orain, 50 urte pasa ondoren, euskaraz irakurtzeko aukera daukagu.

Garrantzitsua da hasierako datu hori, gaur egungo honelako liburuetan kolorea, irudi handiak eta begiak liluratzeko, bista zentzumenaren liluratzeko hainbat teknika erabiltzen baitira. Shel Silversteinen lan honek, aldiz, ez du kolorerik, zuri-beltzean egina da eta marrazki eta trazu sinpleen bidez adierazten zaigu irudia.

Arbola baten eta mutiko baten arteko maitasun istorioa da *Arbola eskuzabala* honetan ageri zaiguna: “Bazen behin arbola bat... mutiko bat maite zuena. Eta mutikoa egunero etortzen zen eta haren hostoak biltzen zituen haiekin koroak egin eta basoko errege bihurtzeko. Mutikoa haren enborrean gora igotzen zen eta haren adarretan kulunkatzen zen eta haren sagarrak jaten zituen”. Liburuaren lehen orrietan ikus daitekeen bezala arbola eta mutikoa dira protagonistak, beren harremana da narratzaileak kontaktzen diguna. Nola bizi diren pozik elkarrekin, nola jolasten duten batak bestearekin.

Mutikoa, baina, heldu egingo da; utziko dio arbola bisitatzeari, harekin jolasteari, eta bakarrik gogoratuko da arbola hartaz haren beharra duenean. Arbolak orduan bere fruitak emango dizkio. Ondoren adarrak emango dizkio etxe bat egiteko; aurrerago enborra izango da mutiko zahartuak hartuko duena nabigatzeko... harik eta arbola motzondo zahar bat besterik ez izan arte. Eta orduan ere, aitonari –mutiko hura gazte, gizon eta

agure bilakatu baita denboraren poderioz–, orduan ere aitonari lagundu egingo dio arbola lagunak.

Hunkigarria da Silversteinen istorioa; Oscar Wilderen *Printze zorionsuaren* pareko istorioa, eta kasu hartan bezala maitasuna izango da gertakari guztien oinarria.

Elkarrizketa labur eta sinpleen bidez; esaldi motzak erabiliz, egileak –testuaren eta irudiaren arteko komunikazioari esker– istorioaren barrena eramaten gaitu arbolaren sakrifizio bakoitzarekin haren maitasuna miresten eta haren minagatik sufritzen. Gizakiak, aldiz, konturatu gabe dena hartzen du, laguna, arbola, arriskuan jarriz eta haren heriotza gerturatzen.

Gure gizarteko kontsumismoaren inguruko gogoeta izan daiteke istorio hau, duela 50 urte aurreikusten zen kontsumismoarena. Baina, batez ere maitasunaren eta adiskidetasunaren inguruko istorioa da *Arbola eskuzabala*; *Printze zorionsuak* bere urrezko azala eta, azkenik, begiak ere eman zituen pobreei laguntzeko. Arbolak dena ematen dio lagunari. Bai eta amaieran atsedean hartzeko lekua ere. Biek, hasieran bezala, elkarrekin amai dezaten. “Ez dut gauza handirik behar orain –esan zuen mutilak–. Toki lasai bat baino ez, eseri eta atsedean hartzeko. Oso nekatuta nago. ‘Ondo’–esan zuen arbolak, ahalik tenteena jartzearekin batera–. Ondo, motzondo zahar hau egokia da eseri eta atsedean hartzeko. Zatoz, Mutil, eseri eta atsedean hartu –eta horixe egin zuen mutilak–”. ■

» TELEGRAMA

Rosa Fascismo, Architettura transgender argazki-erakusketa inauguratuko dute Bilboko Bihotz Cafen urtarrilaren 29an **STOP Lurrazpiko Festa** hemen da: urtarrilaren 29an eta 30ean Kokoschca, Hidrogenesse, Joseba Irazoki... 21 artista Gazteszena aretoan eta Dabadaban (Donostia) **STOP Heroiak** zahar etxean dauden hiru gerra beteranoren inguruko antzezlan da. Urtarrilaren 30ean Donostiako Antzoki Zaharrean **STOP Uztaritzeko Hartzaro Festibalaren** 2016ko edizioa otsailaren 3an hasiko da: musika, dantza eta festa denen gusturako otsailaren 9ra bitartean **STOP**

» MUSIKA

Maurice Ravel zoragarria



Montse Auzmendi

Fauré eta Ravelen obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Jun Märkl
Piano-jotzailea: Ingrid Fliter
Gasteizko Principal Antzokia
Urtarrilaren 14a

Maurice Ravel musikagilea
(Ziburu, 1875 - Paris, 1937)



Ez dakit aldi honetako Maurice Ravelen interpretazioa onena izan den, baina beti da plazer bat Ziburuko maisuaren musika entzutea. Ravelen modernitatea bere garaiko estilotik haratago doa. Impresionismoaren iturrietatik eraikitzen du bere teknika konpositiboa baina ez da impresionisten eredu, edo eredu purua. Jazza, floklore, klasizismoa, denetatik hartzen du zerbait, eta musika berezia egiten du, berea benetan. Orkestrazio distiratsua, imajinazioa, tinbrika berezia... hauexek eta gehiago dira Ravelen ezaugarriak.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ia monografiko bat eskaini zuen hilabete honetako abonu kontzertuan, eder-ederra, nahiz eta behar den ñabardura-aberastasuna ez agertu. Hasteko, Ravelen munduan buru-belarri sartu baino

lehen, Gabriel Fauréren *Pavane op. 50* jo zuten Euskadiko Orkestrakoek, dotore-dotore. Beste gauza bat izan zen hurrengo obra, Ziburukoaren *Piano eta Orkestrarako sol maiorreko kontzertua*. Lan famatu eta kanporakoi hau interpretatzeko Ingrid Fliter pianista argentinarra izan genuen bakarlarri gisa. Musikari gogorra eta entrenatua da Fliter andrea. Oso go-

gorra. Dударik ez, baduela taxua eta indarra jotzerakoan, baina sotiltasunik ez. Eta, sentitzen dugu, baina ezin da Ravel interpretatu nota guztiak joaz bakarrik. Haren mundua ulertu eta transmititu behar da eta, alde horretatik ez genuen ezer sumatu Fliter andrearengan. Perkutitu egiten ditu notak, etengabe. Teknika sendoaren erakustaldia egiten du (teknika errefinatuarena ez), baina hori ez da nahikoa musika honen estilo bereziaren bertsio partikular bat egiteko. Gauza bat da norberaren nortasunaren ukitua ematea musikari, eta beste bat dena berdin-berdin jotzea norberaren "jotzeko era" aitzakiatzat jarritz.

Ingrid Fliter piano joleak sari eta errekonozimendu ugari ditu, eta badaki ongi jotzen pianoa, baina beste erreperitorio mota batean agian hobeto sentituko da, impresionismoaren ñabarduren mundu estilistikoan ez da gauza. Propina gisa, orkestrarekin batera Joseph Haydnen obratxo bat eskaini zuen: *Rondo hungariarra*, aurrekoa bezain perkutitua. Haydn ere, ez da bere *cup of tea*. Franck Liszt bat edo, hobeto, Sergei Prokofiev bat eginez gustatuko litzaidake Fliter entzutea, ea horretan hobeto moldatzen den.

Saioaren bigarren zatian, *Daphnis et Chloé* balleta eskaini zuen orkestrak. Lehen aldiz interpretaturiko lan eder hau ongi matizatua atera zen, nahiz eta Principal Antzokiko deabruko akustikak nolabait hondatu. Halere, oso ongi. ■

Kalitatezko despedidea urteari

MIKEL URDANGARINEN KONTZERTUA

Iruñeko Zentral Kafe Antzokian, 2015eko abenduaren 30ean. Areto ia betea, giro lasaian. Bi ordu luze, bis ugarirekin.



Julen Leuza Izkue

@JulenLeuza



BEA MARTINEZ

Urte bukaeran kontzertua egiteko ohitura izan du Urdangarinek azken boladetan. Honakoan, tokia aldatu eta Iruñea hotza aukeratu zuen, Bilboko Kafe Antzokiko giro goxoa alboan utziz, esperientzia arriskutsuak ere probatu behar baitira. Gauzak horrela, harrera ona eman zitzaiola esanen nuke, zuzenekotan eszenatoki aurrean derrigorrezko bi metro huts uzten diren hiri honetan. Taldearen kalitateak merezi zuen behintzat.

Berak sarri aitortu bezala, luxuzko banda zeraman atzean zornotzarrak: gitarra elektrikoan Rafa Rueda maisua, Telecaster miragarriari soinu leun zein gogorak atereaz. Koldo Uriarte teklatu eta melodikan, base harmonikoa fin mantenduz. Nika Bitchiasvilik, arrabitarari zuku birtuosoak atera zizkion. Jon Cañaverasek Urdangarinen bandan ohiak ez den gitarra apala gustu ederraz jo zuen, hura gozatua, eta Angel Celada bateranoa ari zen baterian. Azken honek

harridura oihuren bat sorrarazi zuen publikoan bere izena entzun genuenean, eta ez da gutxiagorako, gasteiztarra El Último de la Fila, Joan Manuel Serrat edo Mecano bezalako talde eta abeslariarekin aritua izan dela kontuan hartuta. Urdangarinek berak esan bezala, ilerik urdinena bazuen ere, berak zekarren energiari handiena eszena gainera. Kalitate handiko banda aparta, edozein kantari atzerritar famatuk eraman zezakeenaren mailakoa. Soinu mahaian Mikel F. Krutzagaren hatzek lan ederra egin zutela aipatu behar da, baita ere. Harritzeko apuntea, bestetik, tarteka taldeak hartu zuen bolumena eta izaera gogorra.

Errepertorioan, orokorrean mitikoak: *Lau Koplatxorekin* hasi, eta jarraian hainbat diskotako kantu ezagun ugari aletu zituzten. Iruñeko publikoa ez da Bilbo edo Donostiakoa, eta argi geratu zen, kantuek ez baitzuten normalen izan ohi duten koroaren laguntzarik



jaso. Hala ere, ezagunenak txalo zaparradaz hartu zituzten iruinseme zein iruinabek. Hiru bertasio: Laboaren *Martxa Baten Lehen Notak*, *Baratze Bat* akaberrako, eta Black-en *Wonderful Life* zoragarria. *Bazkalosteko Kafea*, *Txatxamatxalinatxu* edo *Panderuaren Gizona* bezalako batzuk jo ez zituztenez, bertasioak soberan zeudela pentsatu genuen askok. Kantariaren kontzertu gehiagotan egon garenok badakigu *Badira Hiru Aste* edo *Oihana* kantuen aurretik aurkezpen istorioa datorrela, berak dioen bezala literatura apurrez doitu. Mikel Urdangarinen kontzertua ez litzakeelako Mikel Urdangarinen kontzertua bestela.

Duela 20 urte hasi zen kantuan, baina bera ikustera doan publikoa gaztea da beti. Duela 20 urte ere Iruñea Heavy Metala dela esaten zuten Skalariek. Tira, orain gazterian ska musikak hegemonia duen garai honetan, kantu lasai eta atseginei aukera bat eman zioten hiri buruzagian. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Teresa Toda kazetariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		3	6				9	7
7	1			9				
8	2		4		3		1	6
	6	8	5				4	
	3		1		8		7	
	5			6	2	8		
6	8		7		4		2	3
				8			6	4
2	7				9	1		

6				7	2	1		
								7
1			6		8	4		
		6		7		4		
8		1		3		7		5
	2		9			8		
		9	8		4			6
2								
	3	5	6					4

Azkenak

Koka ezazu erantzun bakoitza bere tokian. Koloretzatutako laukietan egokitutako hizkiak batuz Lapurdiko bi herriren izenak lortuko dituzu.

A Dar-dar eginez, dardarka

Zarpailak

Ostikoa

Kantari

Gune beltz

B Txondor:

Korrika

Betoker

Buruzagi

Gurasorik gabeko ume

Soluzioak

2	7	4	3	6	9	1	5	8
3	9	5	2	8	1	7	6	4
6	8	1	7	5	4	9	2	3
4	5	7	9	3	6	2	8	1
9	3	2	1	4	8	6	7	5
1	6	8	5	2	7	3	4	9
8	2	9	4	7	3	5	1	6
9	3	2	1	4	8	6	7	5
6	4	8	3	7	2	1	5	9

Puzzlea: "Zenbaitetik esan izan dit memorarik idatzi beharko nituzkeela, baina kazetariak beti bere barrian ez, kanpoan dagoena kontatu behar izaten du".

Azkenak: 3 5 6 2 8 7 9 4 1 1 7 5 6 9 4 3 2 2 9 4 5 6 8 7 9 3 2 1 4 8 6 7 5 1 9 8 2 4 3 7 6 2 6 4 7 1 3 5 9 8 (BIARRITZ)

A: Dardaraz, zakarrak, ostikada, abeslari, beltzune.

(AZKAINA)

B: Ikaztoji, lasterka, begitoken, agintari, umezurts.

Françoise David. Emakumeen Mundu Martxaren sortzaileetarikoa



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Quebecetik mundura

“Quebecoko martxaren ideia proposatu nuenean erotzat jo ninduten. Martxaren biharamunean, ekimena mundu mailara zabaltzeko ideia aurkeztu zidaten bi lagunek. ‘Serioski ari al zarete?’, erantzun nien, handinahiegiak zirela ghituz”.

1995ean Quebecoko emakumeen martxa egiteko ideia berari bururatu bazitzaion ere, mundura zabaltzeko xedeak izutu zuen hasiera batean. Lagunek konbentziturik, xedearen gauzaperari lotu zen Françoise David, 1994tik 2001era Quebecoko Emakumeen Federazioko buru izandakoa. Gaur egun, politikan dago buru-belarri, diputatu, grina feminista beti bezain azkar duela.

“Emakumeak dira austeritateak gehien hunkiak”



Jenofa Berhokoirgoin

Eskerrak anbiziotsu zarela...

Diane Matte koordinatzaileari eta Manon Massé mobilizazioaren arduradunari zor diegu anitz. Ideiari hetsia ez izan arren, zailtasunak nituen antolakuntza irudikatzeko. Garaian ez zegoen talde feministetan mundu mailako harremanik! Quebecoko Emakumeen Federazioko kideak konbentziturik, ideien alde bozkatu genuen 1996ko biltzar nagusian. Garaian, federazioko lehendakaria nintzen. Ni ere konbentzitu ninduten eta lotu nintzen gauzaperaren sustapenari, gertatu beharra gertatuko zela pentsatuz.

Oinarriak nahiko erraz adostu zenituzten.

1998an elkartu ginen lehen aldikoz Montrealen, ehun bat herriko 150 bat emakume. Guk pobreziaren aurkako martxa izatea nahi genuen, baina ez zen denen gustukoa. Pobrezia eta bortizkeria guztien aurkako martxa izatea hobetsi genuen. Nazio Batuen Erakundera (NBE) eramane genituen hogeita aldarriak nahiko errazki adostu genituen.

2000. urtea, gauzaperaren urtea.

Sekulako lana izan zen. Hastapenean koordinatzaile bat enplegatu genuen, handik gutxira beste bi, eta apurka-apurka 30 pertsona ziren lanean! Afera alimalea bilakatu zen. Pisua ere zen noski, Quebec mailako antolakuntza izateaz gain, Kanadakoan eta nazioartekoan ere baginela. Kasik porrot egin zuen 1999ko abenduan. 300.000 dolar eskas genituela jakinarazi zidan koordinatzaileak. Sei aste gelditzen zitzaizkigun sosa atzemateko.

Nola lortu zenuten?

Ezustean, Kanadako ministro batekin biltzea lortu nuen. Gobernu federalak ez zigun oraindik dirurik zuzendu, Quebecokoak aldiz milioi bat dolar zigun jada banaturik. Hor, Kanadaren aldia zen. Mirakuluz lortu genuen dirua eta zulorik gabe bukatu genuen martxa.

New Yorken eman ziren azken urratsak.

10.000 emakume ginen bukaerako manifestazio horretan; gehienak Ipar Amerikakoak izan arren, kontinente guztietakoak baziren. NBEko idazkari nagusiaren ordezkorekin, Nazioarteko Diru Funtzarekin eta Munduko Bankuarekin bildu ginen.



Lehenbiziko Emakumeen Mundu Martxa, 2000n. Argazkiaren erdian da Françoise David, pankartaren atzean.

FRANÇOISE DAVIDEK UTZIA

Zein mezu igorri zenieten ?

Emakumeoz hitz egin genien, baita liberalismoaz ere. Feminista izateaz gain, altermundialista ere da gure mugimendua. Neoliberalismoa eta patriarkatua errotik lotuak dira, elkar elikatzen dute.

Gogor doan austeritatea ezinbesteko du neoliberalismoak.

Hor ere, emakumeak dira austeritateak gehien hunkiak. Quebecen adibidez, zerbitzu eta funtzio publikoetan lanean dabilzanen %75 emakumeak dira. Ezin prezatuzko zerbitzuak ekartzen dabil-tza eta horiei esker da jendartea oraino zutik. Murrizketekin emakume horiez trufatzen da gobernua. Bere betebeharrak utziesten ditu estatuak baina, ezinbestean, nork betetzen ditu zerbitzu horiek? Neurri handian emakumeok, izan familian, izan auzotasunean, izan elkarteetan...

Indartsu dabil Emakumeen Mundu Martxa.

Lehen EMMetan gatazkak ziren Ipar eta Hegoko emakumeen artean, kondes-zendentziaz tratatzen genituela zioten. Orain elkar entzute handiagoa dela uste

du. Haien errealitateaz aski hitz egin ez izana deitoratu ziguten antolakuntzan buru-belarri aritutako lesbiana batzuek. Arrazoa zuten. Autoktonoekin ere gabiltza lanean. Aniztasuna ordezkatzeko ahala onduz joan da eta argi da EMMren emaitza dela.

Quebec Solidaire alderdi soberanistako diputatu zara.

Proiektu sozial batean oinarrituriko prozesu independentista proposatzen gabiltza. Proiektu feminista, ekologista eta aurrerakoia dugu. Bi erreferendum bizitu genituen, bigarrena kasik irabazi genuen. Alta, hogeitaz geroago, dena dugu berriz egiteko. %35-%38 inguru dira burujabetzaren alde, ez da nahikoa. Gazteei ez zaie soilik banderaz, NBEko aulkiaz edota gobernu federal gaiztoaz hitz egin behar; proiektu sozial eder bat proposatu behar zaie.

Prozesu independentista nolako lirarteko?

Gobernura iritsiz gero biltzar konstituziogile bat osatuko genuke, herritarrek hobetsia eta biztanleriaren aniztasuna ordezkatzeko lukeena. Paraleloki, Quebecen gero politikoaz bozketa antola-

tuko genuke. Urraspide bikoitza dugu beraz: gero politikoaz gogoeta eta une berean, konstituzioaren idaztea. Testu horretan lirarteko gure baloreak finkaturik, feminismoa barne.

Nola segurtatu feminismoa ez dela bigarren mailara pasako?

Proiektu independentista proposatzen duen alderdia feminista izatea da menturazko independentzia feminismoan oinarritua izatearen segurtapen bakarra. Argiki diogu feministak garela; gure estatutuetan finkaturik dugu parekotasuna. Bazeneki zenbat aldiz hitz egiten dudan emakumez nire hitz-hartzeetan! Baina ez naiz betirako hor... Quebec Solidairek mezu feminista hedatzen segituko duen bermea ba ote dut?

Galdera luzatzen dizut...

Ez dugu inoiz bermerik. Baina ezagutzen ditudan feminista horiek guztiek Quebec Solidairen segituko duteino feminista izaten segituko du alderdiak. Bestalde, emakumeen mugimenduak Quebec Solidaire zaindu behar duela uste dut. Aliatu zenbait baldin baditugu ere, ez da egia gizonak direla horretaz okupatuko. ■



Minutu bakoitzeko 22.000 euro lapurtu zituzten Donostia 2016ren inaugurazioan

Urtarrilaren 23an metodo berri-tzaileak erabiltzen dituen karterista bat agertu zen Donostian: argi eta soinu ikuskizun baten bidez publikoa distraitu, eta 660.000 euro harrapatuta ospa egin zuen hiritik. Ez zuen diru guztia batera eraman, ordu erdi iraun baitzuen lapurretak Udaltzaingoaren arabera, eta beraz, begira zeuden herritarren poltsikoetatik minuturo batez beste 22.000 euro atera ahal izan zituen. Ikerketa zabalik dago eta dirutza eskuratu zuen pertsonak Hansel Cereza izena duela filtratu dute iturri polizialek. Era berean, gaizkileak hirian kolaboratzaile sare bat izan zuela baieztatu ondoren, bertako kideen erretratu-robotak argitaratzeko eskatu diote prentsari.




Gobernu bat konpondu nahian, ipurdiko erretena ikusi zaio Pablo Iglesiasi

Inork ez du ukatuko Ahal Dugu бри- kolaje politikoan abilezia handiko alderdia denik, baina zenbait boto-emaila kezkatzen hasiak dira Pablo Iglesias lanean ari den bitartean mundu guztiaren bistan uzten duenaz. "Oso tolerantia naiz eta ez diot jendearen itxurari garrantzirik ematen, baina argi dago ipurdiko eltze-txoa erakustea saihestu daitekeen zerbait dela", aitortu digu alderdiko iturri batek. Gaiari buruzko galde-rez nekatuta, Iglesiasiek bere ohiko adierazpen neurtuak alde batera utzi ditu: "Zer uste zenuten, PSOEren paktatzeko ez genuela hainbeste makurtu beharko ala?"

SAREAN ARRANTZATUA

Tangaz tanga itsasoa gara!



Aotua gildetu, Tolasoaldean



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
INGURUMENA
EUSKALZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA



ARGIA kazetaritza konprometitu egiteko erabiltzen ditugun baloreen arabera interpretatzen dugu Euskal Herriko errealitatea, baita munduko gainerako herrietakoa ere. Internazionalismoa eta nazioarteko elkartasuna lantzen dituzten EHko taldeak dira gure iturri nagusiak. Urrunekoaren berri emateko ere errora jotzen saiatzen gara eta, hala, hainbat hedabide independenterekin elkarlana bultzatu dugu. Jatorrizko herriak, kultura minorizatuak eta Estaturik gabeko herriak ditugu bidaide.

OTSAILEKO ZOKKETAK



Munduko Jolasak
(5 jolas)

Txatxilipurdi elkarte
www.txatxilipurdi.com



Euskararen berreskurapena
(3 liburu eta dokumental bilduma)

Garabide elkarte
www.garabide.eus



Askapenako materiala
(3 saski)

Askapena, erakunde internazionalista
www.askapena.org

URTARRILEKO
SARITUAK

TRIBIAL FEMINISTA: ARANTXA IRULEGI (ZUMAIA), AMAIA ALVAREZ (GASTEIZ), ANDONI MITXELENA (LESAKA), MIREN ARTETXE (DONOSTIA), ARKAITZ SODUPE (SEGURA)

BIZENTAREN LUMAK: GORKA RUBIO (BILBO), EDURNE ARRIZABALAGA (ONDARROA), MALENTXO ARROSPIDE (LIZARTZA), NEREA RUIZ DE AZUA (DONOSTIA), M. ANGELES AZPIROZ (BARAÑAIN)

GENEALOGIA FEMINISTAK ETA HARPIDETZA: NAHIKARI AYO (GETXO)

BF SASKIAK: PATXI AZKARATE (DURANGO), ASIER ETXENIKE (GASTEIZ), SAIOA ARANDO (ARETXABAETA)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com